



Otxandioko plazan indusketak egin dituzte zoruaren azpian zer aztarna historiko zegoen jakiteko. Belen Bengoetxea buru izan duen ikerketa taldeak aurkikuntza interesgarriak egin ditu. Besteak beste, Pedro de Abendañorena izan zitekeen dorretxe baten arrastoak aurkitu dituzte. • 2-3

## "Indusketan aurkituriko dorretxea Pedro de Abendañorena izan daitekeela uste dugu"



## "Arakatzan hasita, joera lodifobiko asko normalizatuta dagoela konturatzen gara"

**Martxoak 8** • Malen De la Fuente gizarte hezitzaile elorriarrak lodifobiari buruzko berbaldia eskainiko du martxoaren 5ean, Abadiñon; lodifobiaz ez ezik, edertasun kanonez eta aurreiritziez ere berba egingo du. "Lodifobia bizipenen bitartez aztertzea dut gustuko; komunikabideetan dauden estereotipoak aztertu eta parte hartzaileon bizipenekin lotuta", azaldu du elorriarrak. Gizartearen jarrera lodifobiko asko errotuta dagoela ere adierazi du. "Detaile txikiak aldatuta, errazagoa da gauza handiagoak lortzea", esan du. • 18

## Durangarrak akordiorako oinarria berrestera deituta



**Durango** • Durangoko Udalak herritarrei galdetuko die ea tren geltoki zaharraren inguruan lorturiko akordiorako oinarriagaz aurrera egin gura duten ala atzera egin gura duten. Martxoaren 1etik 11ra bitartean egingo du galdeketa, modu telematikoan eta modu presentzialean. • 5

Martxoak 8



EMAKUMEEN  
NAZIOARTEKO  
EGUNA  
Martxoak 8



## 17. Aukera Azoka

martxoak 4-5-6 2022

Durango Landako Gunea

688 738 102

Dendak Bai

www.dendakbai.eus



Ordutegia

Ostirala: 10:00-14:00 / 17:00-21:00

Larunbata: 10:00-14:00 / 17:00-21:00

Igandea: 11:00-15:00





**Belen Bengoetxea  
Rementeria**

**Otxandioko indusketako  
zuzendaria**

**DURANGO | 1966**

## “Indusketan aurkituriko dorretxea Pedro de Abendañorena izan daitekeela uste dugu”

Belen Bengoetxea arkeologo durangarrak Otxandioko plazako indusketak zuzendu ditu

**OTXANDIO • J.GUENETXEA / J.DERTEANO**  
Otxandioko plaza eraberritu aurretik, Belen Bengoetxea arkeologoa buru duen taldeak indusketa egin du bertan, azpian zer egon daitekeen aztertzeko. Aurreko azterketa batean aurkituriko X. mendeko herrixkaren arrastoez gainera, geroagoko dorretxe baten arrastoak ere aurkitu dituzte. Hiribilduaren sorrera ezagutzeko oso lagungarriak diren ondorio garrantzitsuak atera dituzte.

**Indusketa hauetan topatu duzue ezer berririk?**

Aurreko indusketan aurkitu genuen herrixkaren arrasto gehiago aurkitu dugu. Etxola ondoak dira, lurlean, buztinean eta arrokan daudenak. Horrelakoetan gertatzen den moduan, postezulo asko eta oso ezberdinak aurkitu ditugu. Gainera, poste-zulo horiek adierazten dute okupazio

hori oso intentsiboa izan zela: poste batzuk kendu eta beste batzuk sartu zituzten ondo-ondoan. Kontuan izan, zurezko posteak usteldu egiten direla.

**“Hasieran, ez genekien zer geneukan esku artean. Indusketa honetan lubaki bat agertu da, dorre bati dagokiona”**

**Zein sasoiak herrixka izan daitezke?**

Aurreko okupazioa zaharra zela ikusi genuen, baina oraingoan datazio radiokarbonikoak ditugu eta data zehatz batzuk ipintzeko moduan gaude. Horren arabera, lehenengo okupazioa X. mende-

koa da. Sasoi horretako estratuak ez dira oso potenteak. Badakigu hor zeozer egon zela. Baina aurreko etxolaxoko posteak XI. mendekoak dira gehienbat. Beraz, sorrera X. mendekoa izango zen, eta garapena XI. mendetik aurrerakoa izan daiteke.

**Zelako bizimodua izango zuten herrixka horretan?**

Badakigu herrixka formako habitata izango zela. Nekazarien habitat bat, material xumeekin egindakoa, baina nahiko zabala izango litzateke. Gaur egun plaza dagoen inguruan kokatuta. Seguruena, herrixkatxo horrek bere elizaxoa edo ermita izango zuen. Zelan dagoen kokatuta kontuan hartuta, gaur egun Santa Marina eliza non dagoen ikusita, eta eliza hiribilduan sartuta ez dagoela kontuan hartuta, hipotesi modura uste dugu eliza zaharraren arrastoak gaur

egungo elizaren azpian egon daitezkeela.

**X. mendeko herrixkaz gainera, beste aurkikuntza garrantzitsu bat ere egin duzue.**

Hasieran, ez genekien zer geneukan esku artean. Indusketa honetan lubaki bat, hobi bat agertu da, dorre bati dagokiona. Hobi edo lubaki hori bete egin zen geroago. Seguruena, XIV. mendean egingo zuten. Bertan, gaur egun plazaren eta bolatokiaren inguru horretan, dorretxe bat egongo zen.

**“Hobiak 3 metroko sakonera eta 5 metroko zabalera du. Oso handia da. Dorre bat inguratuko zuen”**

**Zeintzuk dira hobi horren ezaugarriak?**

3 metroko sakonera eta 5 metroko zabalera du. Oso handia da. Dorre bat inguratuko luke. Kostatu egin zitzaigun zer zen konturatzea. Ikusi dugu bada delako horrelako hobiak dituzten dorretxeak, nahiko hurbil. Adibi-

dez, orain urte batzuk horrelako zerbait induskatu zuten Arrigorriagan. Normalean, nekazaritzamunduan egoten diren dorreak dira, hau da, espazio zabalean. Otxandiokoa, berriz, hiribilduari pegatuta dago. Oso argi ikusten da hobi honek zatitu egiten duela herrixka.

**Aurkikuntza bi horiek sasoi oso ezberdinetakoak dira?**

Herrixkaren eta dorrearen artean hiru mendeko aldea dago. Guk inguru konkretu bat aztertu dugu. Horrek ez du esan gura espazio guztia data horietan guztietan erabili barik egongo zenik. Ez dakigu noiz abandonatu zuten herrixka. Ez dakigu hiribildua indartzeagaz batera abandonatu zuten, XIII. mendean, edo mantendu egin den, modu marjinal batean bada ere. Izan ere, hiribildua ez zuten herrixkaren gainean eraiki, iparralderago baino. **Iparralderago esaterakoan, norantza esan gura duzu zehatz-mehatz?** Andikona plazarantzago. Udaltetik beherantz hasten da kale nagusia eta inguru horri buruz nabil. Erdi Aroko hiribilduaren hirigintza hortxe hasten da, gune horretan; nahiz eta apur bat itxuragabetuta egon, hortxe dago. Beraz, egin zutena izan zen hiribilduaren ondo-ondoan dorre





Hilabete batzuetan irudi hauxe izan du Otxandioko plazak, indusketa babesten zuten karpekin.

handi-handi bat ipintzea, leku altu batean.

#### Zer aurkitu duzue dorretxeari buruz?

20 metro baino gehiagoko arrasto aurkitu dugu, baita kurba non ematen duen ere. Datu hauek 2015ean leku horretan bertan egindako beste indusketa bategaz lotu ditugu. Iñaki Peredak egin zuen azterketa hori. Orain, dena lotuta, horren proiektzioa egiteko kapaz izan gara. Orain badakigu zein espazio okupatu zuen hiribilduaren barruan. Ikerketa hartan zanga batzuk eginda, hobi

#### Bandokideen gatazkekin lotura izan dezake?

Inguru honetan bandokideen leinu bi egon ziren: ganboatarren aldekoak ziren abendañotarrak, eta oinaztarren aldekoak ziren Butron-Mujika. Elkarren etsai sutsuak izan ziren. Abendañotarrak Legutioko jaunak ziren eta Igorre eta Arratia aldean interes handia zuten. Otxandion ere badugu abendañotarren berri. XV.mendean Lope Garcia de Salazar historialari eta bandokideak *Istoria de las bienandanzas e fortunas* liburuak idatzi zituen eta bertan bandokideen arteko gatazkak, erasoak eta abar kontatzen ditu. Idatzi horietan jasotzen du Butron y Mujica bat (oinaztarra) Otxandion sartu zela eta eraso bat planifikatu zuela Abendañoren etxearen kontra. Setiatu eta eraso egin ziotela dio, batzuk hil egin zituztela ere bai. Etxe hori “mucho fuerte” legez deskribatu zuen. Normala da, jakina, aurkitu dugun lubakia kontuan hartuta. Eraso horren ondorioz dorretxe hori bota egin zutela ere idatzi zuen. “La derriban por el suelo”, dio literalki. Beraz, badugu dokumentatuta abendañotarren presentzia hori, eta baita “mucho fuerte” deskribapena ere, gure indusketaren emaitzagaz bat datorrena.

#### Zelako lubakia da aurkitu duzue-na?

Hormek V forma dute. Poste-zuloak sartuta ikusten dira. Zuzeko hesi moduko bat egongo zen, espazio hori gehiago babesteko. Hobiaren hondoan egur batzuk agertu dira. Analisia egingo diegu eta eraztunen bitartez datak jakin ahalko ditugu. Burdinezko pieza batzuk ere agertu dira inguru horretan. Pieza horiek plegatuta daude. Burdinoletatik



Ikerlariak plazako indusketan lanean.

**Bisita gidatuetan interes handia ikusi dugu. Zer agertu den jakiteko grina hori nabaritu dugu**

baten aztarnak aurkitu zituzten, 'V' formakoak, baina ezin izan zen zabalera guztia osorik dokumentatu. Beraz, argi zegoen hor zegoela eta Erdi Arokoa zela. Baina hiribilduko lubaki bat izan zitekeela interpretatu zen. Gainera, haren orientazioa nahiko arraroa zen, diagonal zena, elizarantza zetorren... Oraingo datuekin eskema guztiak apurtu zaizkigu. Lubaki horrek zer babesten zuen ikusi dugu.

#### Zergaitik dorrea hor? Badu osagai militarrik?

Bai, argi eta garbi. Oso hobi handia dauka. Osagai sinboliko bat ere badauka. Zelan eraikitzen den hiribilduaren ondo-ondoan. Kontuan izan behar dugu dorre hauek leinuen arteko gatazkekin lotuta daudela.

ekarritako piezak izan daitezke, fabrika txikietara eramateko.

#### Informazio horregaz guztiagaz, zein ondorio atera duzue?

Indusketan aurkituriko dorretxea Pedro de Abendañorena izan daitekeela uste dugu. Dorrea berregin egingo zuten seguruena. Hobi hori anulatu egin zuten, bete egin zuten. Guk aurkitu duguna, hobi barrukoa, XVII. mendekoa da. Beraz, momentu horretara arte, modu batera edo bestera, zutik egon zen. Erabat zutik egongo zen eta oso altua izango zen? Beharbada etxe normalago bat izango zen momentu horretarako. Baina XVII. mendearen amaierara arte hormak egon ziren, eta hobia ere bai. Sasoi horretako dokumentu batzuk ditugu eta horietan

aipatzen da abendañotarren dorretxe bat zegoela plazan. Baina egiturak han daude oraindino. XVIII. mendean, oster, inguru hori plaza forma hartzen hasi zen eta beste hirigintza fase bat hasi zen. Elizako kanpandorra berregin egin zuten, esate baterako, eta udaletxeko eraikina ere bai.

#### Zelan joan dira bisita gidatuak?

Oso ondo joan dira. Hainbat domekantan egin ditugu, euskaraz eta gaztelaraz bisita bana egun bakoitzeko. Talde bakoitzean 25 lagun egon ziren. Oso gustura geratu nintzen. Jendeak interes handia duela ikusi dugu. Zer agertu den jakiteko grina hori nabaritu dugu. Material batzuk geneuzkan bertan jendea erakusteko. Jendeak aukera du ma-

terial hori ikutzeko. Informazio panel batzuk ere ipini genituen eta etxera eramateko informazioa ere eman genien. Izan ere, han aurkiturikoa herritarren ondarea da. Han ikusi gaituzte hiru hilabeteen, gora eta behera. Hori guztia erakutsi egin behar da.

#### Maila pertsonalean, pozik zaude aurkitutakoagaz?

Indusketa hau oso aberasgarria izan da. X. mendetik hasita espazio horren bilakaera zelakoa izan den ikusi dugu. Pauso bakoitza zein izan den ikusi dugu. Gainera, dorretxea lubaki handi horregaz aurkitzea sorpresa handia izan da, eta bere presentzia dokumentu idatziekin lotzea lortu dugu. Horrela, emaitzak borobildu ahal izan ditugu. Alde horretatik, oso pozik gaude.



# Río de Orok Durangaldeko familiak deitu ditu udan ume sahararrak harreran hartzeko

Elkarteak Oporrak Bakean programari heldu dio berriro. Bestalde, Karabana Solidarioa 25.600 kilo produktugaz bete dute



Río de Oroko kideak Saharako umeekin egindako irteeran.

## DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangaldeko familiek zabalik dute udan Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuan bizi diren ume sahararrak harreran hartzeko aukera. Río de Oro elkarteak Oporrak Buel-

tan programari ekin dio berriro ere, eta Durangaldeko familiak animatu ditu umeak harreran hartzera. Elkarteak dio "inoiz baino beharrian handiagoa" dagoela horretarako, kanpaina etenda egon

da-eta azken urte bietan. "Udako planak egiten ditugunean, eguzkia, hondartza, lagunak, bidaiak, familia eta beste hainbat gauza polit izaten ditugu gogoan. Irudikatu dezakezu zeure burua hori guztia

beste kultura bateko ume batez konpartitzen? Durangaldean posible da hori guztia betetzea eta uda ume saharar batez partekatzea", adierazi du elkarteak. Río de Oro dio bera arduratuko dela gasturik

esanguratsuenaz. 676108794 telefonoa ipini dute familien eskura. Izena emateko epea martxoaren 11ra arte dago zabalik.

## 25.600 kilo elkartasun

Bestalde, elkarteak prest du dena Durangaldeko Karabana Solidarioa Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetara bidaltzeko. Trailer bat elikagaiekin eta osasun produktuekin bete dute. 25.600 kilo elkartasun, guztira. Arroza, pasta, lekaleak, atuna, pixoihalak, kon-

**"Herriarren inplikazioa eskertzen dugu, sahararrek izandako elkartasunagaitik"**

presak eta eskola materiala batu dute. Karabanak martxoaren 5ean irtengo du Donostiatik. Elkarteak "oso pozik" dago kanpainak izandako erantzunagaz. "Aurreikusitako helburu guztiak gainditu" direla esan dute. Orain aste batzuk martxan ipinitako diru bilketan, 35.391 euro batu zituzten. "Beste behin ere euskal herriarren inplikazioa eskertu beharrean gaude, herri sahararren alde agerturiko elkartasunagaitik eta konpromisoagaitik", adierazi dute.

# Durangaldeko osasun arretaren beharrianak aztertzeke eskatu diote Eusko Jaurlaritzari

EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos-Ezker Batua alderdietako legebiltzarkideek beharrianak aztertzeke eta beharrezko neurriak planifikatzeko eskatu diote Osasun Sailari

## DURANGALDEA • A.M.

Eusko Legebiltzarreko gehiengo zabalak Durangaldeko osasun arretak dituen beharrianak eta gabeziak aztertzeke eskaria egin dio Osasun Sailari. EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos-Ezker Batua alderdiek akordio bat sinatu dute horretarako. Itunak puntu bi ditu. Batetik, Barrualde-Galdakaoko ESI barrutiaren egoera aztertzeke eskatu dute;

honela, eskualdeko anbulatorioetako zein ospitaletako osasun arretaren beharrianak identifikatuko lituzkete. Ikerketa horretan, eskualdeko ezaugarri geografiko eta demografikoak

**Eskualdeko ezaugarri geografiko eta demografikoak kontuan hartzeke eskatu dute**

kontuan hartu beharko dituzte. Bestetik, Durangaldeko eskualdeko erakundeekin berba egiteke eskatu diote Jaurlaritzari, "ekarpenak eta eskualdeko erakunde eta eragile sozialek helarazi dizkietenak ezagutzeko", arreta berezia adingabeengan, adinekoengan, paziente pluripatologikoengan eta kolektibo zaurgarriengan ipinita. Azterketa urtebeteko epean egiteke eskatu dute.



Usansolo-Galdakaoko ospitalea.

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2022ko otsailaren 25a  
20. urtea - 883. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabari.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Ainhoa Iraola Mazorriaga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua





Iazko martxoaren 14an Durangon egindako herri galdeketa irudia.

## Botoa ematera deituta, PERIaren akordiorako oinarria baliozkotzeko

Durangoko Udalak herritarren eskura utziko du tren geltoki zaharreko orubean lorturiko akordiorako oinarriaren geroa. Herritarrek martxoaren 1etik 11ra eman ahalko dute botoa

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak herritarrei galdetuko die ea tren geltoki zaharraren inguruan lorturiko akordiorako oinarriagaz aurrera ala atzera egin gura duten. Martxoaren 1etik 11ra bitartean, galdeketa egingo dute eta herritarrek bertan parte hartzea deitu dituzte. Durangarrek galdera zehatz honi erantzun beharko diote: *Ados al zaude Durangoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak PERI Ferrocarril deiturikoaren baitan lortutako aurre akordioarekin?* Erantzunen artean, baietza ala ezetza. Dena

dela, gobernu taldeko kideek akordiorako oinarria balioetsi dute. Gogoratu dutenez, horri eskerrak "ez dira 18 solairuko bost dorreak eraikiko", berdeguneak "%20" handituko dira, "Babes Ofizialeko 240 etxebizitza" ipiniko dituzte alokairuan, eta "Pinondo Etxea eta San Agustingo ospitale zaharra bazterkeria egoeran dauden Durangaldeko herritarren beharizanetara" egokituko dituzte.

### Bozketarako bideak

Botoa modu telematikoa emateko, [partehartu.durango.eus](http://partehartu.durango.eus) atarira jo beharko da, martxoaren 1etik 11ra bitartean. Modu presentzian bozkatu gura duenak honako aukera hauek ditu: martxoaren 1ean Astarloa Nagusien Etxean (16:30-19:30), martxoaren 3an Andra Mariko elizpean (16:00-20:00), martxoaren 5ean Ezkurdin (10:00-14:00), martxoaren 6an Herria tabernaren aurrealdean (10:00-14:00), martxoaren 9an Madalenako plazan (10:00-14:00), eta martxoaren 11n Ibaizabal parkean (16:00-20:00).

teko, [partehartu.durango.eus](http://partehartu.durango.eus) atarira jo beharko da, martxoaren 1etik 11ra bitartean. Modu presentzian bozkatu gura duenak honako aukera hauek ditu: martxoaren 1ean Astarloa Nagusien Etxean (16:30-19:30), martxoaren 3an Andra Mariko elizpean (16:00-20:00), martxoaren 5ean Ezkurdin (10:00-14:00), martxoaren 6an Herria tabernaren aurrealdean (10:00-14:00), martxoaren 9an Madalenako plazan (10:00-14:00), eta martxoaren 11n Ibaizabal parkean (16:00-20:00).

## Ardo Saltsan Fest! jaialdiak bost egun izango ditu ardo eta gastronomia gorenez gozatzeko

Aurtengoa jaialdiaren lehenengo edizioa izango da. Martxoaren 22tik 26ra egingo dute, Olajauregi hotelean



2019ko Ardo Santsaneko argazkia.

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

"Saltsan Katerinek betidanik izan du berrikuntzarekiko etengabeke kezka". Halantxik dio Iñaki Uribe, Saltsaneko arduradunak. Eta ez zaio arrazoirik falta. Orain arte Ardo Saltsan izanikoak bira berri bat izango du-eta aurten. Martxoaren 22tik 26ra bitartean, Ardo Saltsan Fest jaialdiaren lehenengo edizioa egingo dute. Bost eguneko jaialdia izango da eta dastaketak, elikagaien eta ardoaren arteko uztartzeak, tailerrak, musika eta Eguen Saltsanen edizio berri bat izango ditu. Ekitaldiak Olajauregi hotelean egingo dituzte. "Ostalaritza eta

hura osatzen duen kanal guztia gogaituta dago urte bitik hona", dio Saltsaneko komunikazio arduradun Maite Arroita. Horregaitik, Ardo Saltsan Fest-ek "inflexio puntu bat" izan gura du, "sektoreak bizi duen nekea albo batera uzteko eta janari zein edari onaz gozatzeko".

Aurreratu dutenez, ardoaz gainera, sagardoa, garagardoa eta sakea ere dastatu ahal izango dira. Bestalde, zapatuan, martxoaren 26an, jai batez emango diote amaiera egitarauari. Sarrerak eskuratzeko, Saltsan Katerineko denda fisikora edo [www.saltsan.com](http://www.saltsan.com) web orrira jo behar da.

## Etxeen alokairurako laguntzak prest Durangoko gazteentzat

Udalak 70.000 euro ipiniko ditu. 35 urtetik beherakoek martxoaren 17ra arteko epea dute laguntzak eskatzeko

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak 70.000 euroko diru poltsa aktibatu du gazteei etxebizitza alokatzeko errentan diruz laguntzeko. 35 urtetik beherako durangarrek izango dute laguntza eskatzeko aukera. Horretarako, honako baldintza hauek bete beharko dituzte: 18tik 35 urtera bitarteko adina izatea; etxebizitzarik jabetzan ez izatea; etxebizitzaren alokairu-kontratua Bizilagunen erregistratuta egotea; urteko diru-sarrerek 21.000 euro gordinetako muga ez igarotzea, eta azken 12 hilabeteetan Durangon erroldatuta egotea. Horrez gainera, udalak aurreratu du diruz lagunduko duen alokairu prezioa 700 eurokoa izango dela

gehienez. Laguntzak progresiboak izango dira, hiru tartetan banaturikoak. Interesdunek Herriarrentzako Arreta Zerbitzura edo udaleko egoitza elektronikora jo beharko dute eskariak egiteko.

### Udalak diruz lagunduko duen alokairu prezioa 700 eurokoa izango da gehienez

ra. Martxoaren 17ra arteko epea izango dute horretarako.

Gobernu taldeko kideek adierazi dutenez, etxebizitzaren arazoak jakitun, "bestelako neurri batzuk" ere aztertu gura dituzte, gazteei gurasoen etxetik emantzipatzeko aukerak zabaltzeko.

## Epaitegiak baliogabetu egin du gaztetxea izandakoa botatzeko 2018an sinaturiko akordioa

Akordioa beharrezko txostenak aurkeztu barik egin zuten. EAEko auzitegiak arrazoia eman dio Herriaren Eskubideari



Uribarri 23 zenbakiko eraikina.

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Euskadiko Auzitegi Nagusiak baliorik barik utzi du Durangoko Udalak eta URA agentziak Uribarri kaleko eraikina botatzeko 2018ko otsailean sinaturiko akordioa. Hitzarmen hura EAJK eta PSE-EEk osaturiko gobernu taldeak sinatu zuten, URA agentziagaz batera. Alde biek 425.000 euro ipiniko ziztuztela hitzartu zuten. Baina Herriaren Eskubideak helegitea ipini zien asmo horiei, eraikina jabetza pribatukoa denez eraikina botatzeko ardura jabeak berak hartu beharko lukeela irizita. Orain, lau urte joan eta gero, helegite horren ebazpena ailegatu da: Auzitegiak arrazoia eman dio Herriaren Eskubideari. Epaiak jasotzen duenez, itunak ez zituen "zegozkion legezko prozedurak" jarraitu. Ez ziren aurkeztu eraikina botatzeko justifikatzeko txostenak, ezta eraisketari loturiko txosten ekonomikoak ere.



## Eukaliptoaren landaketa galaraztea eskatzeko herri ekimena martxan da Atxondon

Atxondon sorturiko talde honen helburua basogintza "eredu berri bat" saretzea da



Axpen egindako pintaketaren argazkia.

### ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eukaliptoaren landaketari amaiera emateko asmoz, eukaliptoaren aurkako herri ekimena sortu dute Atxondon. Plataformako kideek azaldu dutenez, Axpe inguruan egingo den eukaliptoaren landaketa bat galarazteko sortu dute herri ekimena. "Baso lurrak erosi eta denean eukalipto landatzeko helburua duen Kantabriako enpresa bat Atxondora etorri da, bertako basoetan eukaliptoak dakarren epe ertaineko ondorio larriak zabaltzera", salatu dute. Taldearen helburua basogintza "eredu berri bat" saretzea eta eukaliptoaren hazkundera geldituko

**Axpe inguruan egingo den landaketa bat galarazteko sortu dute herri ekimena**

**Taldearen helburua basogintza "eredu berri bat" duen "herri olatua" sortzea da**

duen "herri olatu bat" sortzea dela aitortu dute. Horrez gainera, herri mugimenduko kideek Atxondoko Udalaren baso politika ere salatzen dute. "Oposizioaren eta herri mugimenduaren inizatibaz harturiko erabakia aurrera eramateko eskatzen diogu udalari, eukalipto landaketa basatiak gelditzeko", amaitu dute.

### Espezieen aniztasuna

Atxondoko hainbat herritarrek ekimen bat gauzatu dute, basoetako espezieen aniztasuna defendatzeko. Aldi berean, baso biziak bultzatzeko beharrezana lau haitzera zabaldu dute.

## Etxeko eta zaintza lanetarako aholkularitza zerbitzua Elorrioren

Elorrioko Udalak jakinarazi du zerbitzua berriro aurrez aurrekoa izango dela martxoaren 4tik aurrera



Elorriorek eskura dute zerbitzua.

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak eta Mujeres con Voz Elkarteak eskaintzen duten informazio eta aholkularitza zerbitzua sendotu egin da herrian, eta zerbitzu hau berriro aurrez aurrekoa izango da martxoaren 4tik aurrera. Hile bakoitzeko lehenengo barikuan eskainiko dute, baita modu telematikoa ere.

Etxean eta zaintza lanetan dabiltzan pertsonei eta horiek kontratatzen dituztenei zuzenduriko zerbitzua da, eta doan ematen da, Alazne Mendizabal Berdintasuneko zinegotziak azaldu duenez. "Iaz ipini genuen martxan proiektua, zainketen arloan lan egiten duten

emakumei eta horiek kontratatzen dituzten pertsonei aholkuak emango zizkien lankidetzaren sarea sortzeko helburuagaz. Zerbitzuak

**Zerbitzua hile bakoitzeko lehenengo barikuan eskainiko dela jakinarazi du Elorrioko Udalak**

harrera ona izan duenez, eta eskaria horren handia izan denez, zerbitzua berriro ematen hastea eta finkatzea erabaki dugu", azaldu du zinegotziak.

## Berrizko Udalak bide publikoen inbentarioa egingo du

Bide historikoak berreskuratzeko eta batzuetan sortzen diren gatazkak amaitzeko egingo dute inbentarioa

### BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bide historikoak berreskuratzeko eta batzuetan sortzen dituzten gatazkei amaiera emateko asmoz, Berrizko Udalak bide publikoen inbentarioa egingo du. "Udalerraren eta landa-guneen bilakaera historikoan funtsezkoa den bide sarea berreskuratu gura dugu, mendeetan zehar kultura-ondare lez eta egungo bide-sare lez eratu baitira, komunikazio eta aisialdi erabilera desberdinetarako", adierazi du Orlan Isoird Berrizko alkateak.

Berrizko Udalak herritarren laguntza eskatu du proiektu hau gauzatzeko, eta atzo, esaterako, berriztarrei lan metodologia aurkeztu zieten Kultur Etxean.

Bestalde, udaleko arduradunek gogorarazi dute herriko bideak ezinbesteko azpiegiturak direla auzoak eta baserriak euren artean

**"Bide publikoen inbentario honeguz, sortzen diren gatazkak konpondu gura ditugu"**

komunikatzeko, eta baita horiek hiriguneagaz edo industrialdeekin komunikatzeko ere. "Bide publikoen inbentario honeguz, sortzen diren gatazkak konpondu gura ditugu", esan dute Berrizko Udaletik.

## Elorrioko Gaztetxearen 34. urteurrena mozorrotuta ospatuko dute

Asteburu honetan egingo dute ospakizuna eta Aste Santua da mozorrotzeko proposatu duten gaia. Zapatuan, 10:00etan emango diote hasiera egitarauari

### ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

'Herri bat gaztetxe bat'. Herriko hainbat gaztek lelo horregaz zabaldu zuten Gaztetxea Elorrioren, 1988ko urtarrilean, Iturri eraikina okupatuta. Herriko hainbat taldek hartu zuten lekua Iturrin. Handik gutxira, udalagaz obretarako akordio batera heldu arren, aurrerantzean autogestioan sakondu zuten.

Harrezkero, hainbat belaunaldi igaro da gaztetxetik, eta asteburu gaztetxearen 34. urteurrena ospatuko dute. Egitarau zabala antolatu dute horretarako. Zapatuan, 10:00etan emango diote

hasiera egunari, errugbian jokatuta, tag errugbia modalitatean. Horren ondoren, haurrentzako jokoak egongo dira elizpean, eta

**Arratsaldean bertsolariak egongo dira Elorrioko Gaztetxean: Bittor Altube eta Gorka Pagonabarraga**

**Iheskide, Mudo Selektah, The Lio eta Dj Via Crucix igoko dira Elorrioko Gaztetxearen oholtzara**

13:30ean trikipoteoa, gaztetxetik hasita. 14:45ean omenaldia egingo dute San Josen, eta 15:00etan bazkaltzeko batuko dira.

Arratsaldean, bertsolariak egongo dira gaztetxean: Bittor Altube eta Gorka Pagonabarraga. Gero, Tribute to Piperrak taldearen kontzertua egongo da. 20:00etan afora emango dute gaztetxean bertan, eta 22:30ean Iheskide, Mudo Selektah, The Lio eta Dj Via Crucix taldeen kontzertuak egongo dira. Domekan emango diote amaiera urteurrenari, 8:00etan, gaupasa egindakoek argazkia aterata.



# Osasun gida



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16



pablo zubizarreta  
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D  
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com  
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**  
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika  
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenez, betidanik izan gara  
adituak esterilizazioan.  
Orain, inoiz baino gehiago,  
den-dena prestatu  
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -  
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194  
454uecdental@gmail.com

 **Optometria**  
PSE: 162/13

**Naia  
Zabala  
Azumendi**  
11587 kol. zk.



keinu

- Optometriari teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboak • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99  
www.keinuoportometriazentroa.com

 **Podologia**  
PSE: 148/13

**PAUSOZ  
Podologia  
klinika PAUSO**

**Goiatz Murua**  
kol. zbk. 147  
**Ainhoa Elorza**  
kol. zbk. 238  
**Nerea Rodriguez**  
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

**Telefona: 946203630**  
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**  
PSE: 112/13



**J.L. URRETA ZABALO**  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
IMQ, PADI (umeen hortz programa)  
Ortodontzia

**Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.**  
48200 DURANGO  
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**  
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaestheticadurango.com

Obesitatea-zelulitisa, Laserra:  
depilazioa, barizeak, tatuajeak behin  
betiko kentzeko laserra..  
Adinaren kontrako tratamenduak:  
orbanak, botoxa...

**Txatxiena, 6 / 48200 - DURANGO**  
Tel.: 946 810 387

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

**Trañabarren 13, 4. blokea  
behea eskua  
MATIENA-ABADIÑO**

944 657 132 - 686 906 374



# Hilerri ondoan Memoriaren Gunea sortuko dute; Basterretxearen eskulturaren erreplika bat eta informazio panel bat ipiniko dituzte

1936ko bonbardaketan hildakoak bertan lurperatu zituztela eta, haiek gogoratu eta omentzeko helburua du espazio berriak

**OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO**

Aurtengo uztailean, 86 urte beteko dira Otxandio bonbardatu zutenetik eta sarraski hartan hildakoen hobi komuna ez da agertu oraindik. Udaleko eta elizako artxiboetatik jakina da hainbat gorpu kanposantura eraman zutela, baina iazko apirilean egindako indusketetan ez zen hobi komunik agertu. Orduan, udalak aurreratu zuen biktima haien memoria lantzen jarraituko zuela, eta borondate haren emaitza errealitate bihurtzen dabil egunotan, hilerritik gertu dagoen San Roke ermitaren ondoan Memoriaren Gunea egiten dabilta eta.

Berdeguna bat egingo dute eta hainbat osagai jarriko dute bertan. Andikona plazan dagoen Nestor Basterretxearen eskulturaren erreplika bat ipiniko dute. Otxandioko Vicinay enpresak egin du erreplika hori.

## 'Lorratzak' ibilbideko parte

Eskulturaren ondoan, *Lorratzak* izeneko memoriaren ibilbideari

dagokion informazio panel bat ipiniko dute. Gerra zibilean Otxandion gertatu zena hobeto ulertzeko adierazgarriak diren herriko hainbat puntu lotzen ditu *Lorratzak* ibilbideak eta aurrerantzean ibilbide horretako parte bihurtuko da Memoriaren Gunea.

Egunotan, ermitaren ondoko eremua atontzen dabilta, elizaren eta Andresa Landa fundazioaren arteko lankidetzari eskerrak. Lan horiek amaiturikoan, berdegunea sortu eta han ipiniko dituzte eskultura eta gainerako osagaiak.

## Hildakoak non?

Iazko indusketetan, ustez hobi komuna zegoen tokian enterramendu indibidualak aurkitu zituzten; hau da, gorpuak banan-banan eta bata bestearen ondoan zeuden lurperatuta, ilaran. Aranzadiko adituen ustez, haiek ez ziren bonbardaketa-oste batean egingo liritekeen enterramendu motak eta ez zuten gehiago ikertzeko arrazoirik ikusten. Baina horrek ez du esan gura



Nestor Basterretxearen eskulturaren erreplika, San Roke ermitaren ondoan.

## Aurrerantzean, 'Lorratzak' ibilbideko puntu berri bat bihurtuko da Memoriaren Gunea

aukera hori guztiz baztertu daitekeenik. Udaleko gobernu taldeak uste zuen enterramendu indibidual haiek bonbardaketan hildakoenak izan zitezkeela. "Grabatuta daukagun testigantza batean, hildakoak lurperatzen ibilitako gizon batek argi eta garbi dio ezagunak ziren

pertsonak banan-banan eta bakoi-tza bere lekuan lurperatu zituztela, eta beste denak elkarregaz, zenbait lekutan", esan zuten. "Herri txikia izanik, hildakoak oso hurbilekoak izango ziren eta zentzu osoa du duintasunez lurperatu izanak", gaineratu zuten.



Gerea auzoan gertatutako lur-jausia.

## Diru laguntza eskatu dute lur-jausiak konpontzeko

Urte hasieran gertaturiko lur-jausiak konpontzeko proiektuak Bizkaiko Foru Aldundira bidali dituzte

**MALLABIA • J.D.**

Urtarrileko euriteen ondorioz hainbat lur-jausi gertatu zen Mallabian, zenbait auzotarako bide ondoetan. Kalteak aztertu ondoren, eurak konpontzeko proiektuak egin eta Bizkaiko Foru Aldundira bidali ditu udalak. Konponketak eragingo dituen

gastuen zati bat Aldundiko diru laguntzekin estaltzea da asmoa.

Iazko urte amaieran eta aurtengoaren hasieran hiru lur-jausi gertatu ziren Mallabian: herrigunetik Urtia industrialdera doan bidean, Gerea auzoan —Longa auzorako bidearen ondoan— eta San Juan auzoko landa batean.

## 34 herritarrek bat egin dute Mañarian eginiko prozesu parte hartzailean

Jasoriko proposamenak bilera batean aztertuko dituzte

**MAÑARIA • J.D.**

Mañarian prozesu parte hartzaile egiten dabilta udaleko aurrekontuetako 14.000 euro zertan erabili erabakitzeko, eta lehenengo fasean 34 herritarrek parte hartu dute.

Udalak hainbat bide zabaldu zuen herritarrek euren proposamenak helarazi zituzten. Joan zen domekan amaitu zen horretarako epea eta 19 proposamen batu

dituzte. Beste lau pertsonak ere eman zuten izena parte hartzeko, baina ez dute proposamenik egin.

Horrez gainera, prozesua dinamizatzeke arduratu duten Maraka taldeko kideek herriko plazara irten zuten joan zen asteko egun batean, herritarren iritzia jasotzera. Modu horretara, beste 11 ekarpen jaso zituzten. Proposamen guztiak bilera batean aztertzea izango da hurrengo urratsa.



Proiektuko dinamizatzaileak kalerik kale ibili dira herritarren iritzia jasotzen.

## Izurtzako Udalak webgune eraberritua estreinatu du

**IZURTZA • J.D.**

Izurtzako Udalak bere webgunea ([www.izurtza.eus](http://www.izurtza.eus)) eraberritu du Bizkaiko Aldundiko egitasmo bat aprobetxatuta. Udallerri denentzat zabalik egon den planaren barruan, Izurtzako Udalak hainbat webgune ereduren artean aukeratu ahal izan du.

## Bizkaiko Aldundiko egitasmo bat baliatu dute udaleko webgunea eraberritzeko

Webgune berrituak "erabiltzaile guztientzako zerbitzu modernoak eta eskuragarriagoak eskaintzen ditu", azaldu dute udal ordezkariak udaleko ohar batean.

Orain, udaleko zenbait datu eta proiektu —HAPOari buruzko txostena, udalbatzarreko aktak...— pantaila nagusiaren erdi-erdian aurkitu daitezke, klik bakar bat eginda.





# INAUTERIE TAKO ARGAZKI LEHIAKETA 2022

Webgunean botorik gehien  
jasotzen duen argazkiaren egileak  
Errigora-ren otzara bat irabaziko du



Igo zure argazkia  
otsailak 25etik  
martxoak3 ra bitartean

\*Dinarriak [anboto.org](http://anboto.org) webgunean



# Iaz, Abadiñoako 50 familiak jaso zuten Elikagaien Bankuak emandako laguntza

2021ean, Elikagai Bankuak 18.047 kilo banatu zituen, 2020an baino zertxobait gehiago. 2020an, 17.627 kilo eman zituzten



200 bat lagunek jaso dute laguntza.

## ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoako Udalak premia berezia duten familiei laguntzen jarraitzen du Elikagai Bankuaren bitartez. Asteon udalak prentsa ohar baten bitartez jakinarazi

duenez, zaurgarritasun egoeran dauden Abadiñoako 50 bat familiak, hau da, herriko 200 bat lagunek jaso zuten Elikagai Bankuaren laguntza 2021ean. Udaletik azaldu dutenez, Elika-

gai Bankuak 18.047 kilo banatu zituen iaz, 2020an baino zertxobait gehiago. 2020an, 17.627 kilo elikagai banatu zituzten. Onuradunen kopuruari dagokionez, azken urte bietan onuradun

kopuru bera egon dela jakinarazi du Javier Crespo alkateorde eta programako arduradunak. "Laguntza hori behar duten pertsonen kopurua ez da handitu aurreko urteagaz alderatuta.

Gure ustez, hori positiboa da, baina, edozelan ere, adi egongo gara, baita gizarte zerbitzuen aldetik ere, beharrezkoak diren baliabideak erabiltzeko", azaldu du Javier Crespok.

**Beste igerileku batera doan abadiñarrak %50era arteko laguntza jaso ahal izango du**

## Igerilekuetarako laguntzak

Abadiñoako Udalak beste laguntza bat ere onartu du asteon. Durangoko, Zornotzako, Atxondoko, Berrizko eta Elorrioko igerilekuak erabiltzeagaitik, abadiñarrek %50era arteko laguntza jaso ahal izatea onartu zuten martitzeneko osoko bilkuran. Astolako igerilekuak itxita egotea da laguntza hori emateko arrazoia. "Astolako igerilekuak itxita daudenez, beste herri batzuetara joan behar duten bizilagunei konpentsazioa eman gura diegu", azaldu du udalak.

Horrez gainera, Abadiñoako Astolako igerilekuetako estalki berria ipintzen egongo direla eta, igerilekuak udan itxita egongo direla aurreikusten dute.

## ZALDIBAR • A.M.

Kurutzezarreko lur eremuko proiektuari helegiteak ipini dizkio te hainbat zaldibartarrek, bertako jolastokia handitzearen aldeko plataformak horretarako deialdia egin eta gero. Otsailean amaitzen da horiek aurkezteko epea. Horrez gainera, eguenean elkarretaratzea egin zuten, Amesten Dugun Jolastokia Eraikitzen proiektuak deituta, osoko bilkura zegoela baliatuta. Udaletzeko plazan egin zuten protesta eta dozenaka herritar batu zen bertan. Helegiteak ipintzeaz gainera, proiektua birplanteatzeko eskaera zuzena egin diote Zaldibarko udal gobernu taldeari; eskola kontseiluagaz batzartzeko deia ere egin diote.

## 2018tik martxan

Amesten Dugun Jolastokia Eraikitzen proiektua 2018an ipini zuen martxan Zaldibarko hezkuntza komunitateak; eskola publikoko patioa eta inguruko belargunea atontzeko helburuagaz sortu zuten, eta prozesu parte hartzaile bati ekin zioten horretarako. Baina 2019ko hauteskundeetan izandako udal gobernu aldaketagaz, proiektua bertan behera geratu zen. Orduetik, sinadura bilketa eta hainbat elkarretaratze egin dituzte, besteak beste. 1.033 zaldibartarren sinadurak batu zituzten.

## Zaldibarko jolastokiaren aldekoek alegazioak aurkeztu dituzte eremua ez mugatzeko

Kurutzezarreko lursailean eraikiko diren etxebizitzaren eraginez "eskola eremua handitzea ezinezkoa" dela salatu dute



Zaldibarko jolastokiaren aldeko ekimen bateko argazkia.

## Iurretako V. Beer Azoka martxoaren 19an egingo dute

Garagardo azoka Askondoko aterpean egingo dute eta Euskal Herriko lau garagardogilek parte hartuko dute

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako V. Beer Azoka iazko abenduan zen egitekoa, baina osasun egoeragaitik ezarritako neurriek bultzatuta, antolatzaileek atzeratzea erabaki zuten. Bada, jakinarazi dute data berria: martxoaren 19an egingo dute,

Askondoko aterpean. Prestaturiko egitaraua birmoldatu egin dute eta azken zehaztapenak daude lotzeko, antolatzaileen berbetan. Azokak herriko ostalarien babesa du aurrean ere, eta lau garagardogile izango dira bertan: Garai Brewing, Drunken Bros, Saltus eta Baober.



Garagardo azokaren aurreko edizio bateko argazkia.



**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Zornotzako enplegu bulegoak iazko urtearen balantzea egin du bere urteroko memorian. Honako datu hau jakinarazi dute: iaz 1.794 lagun zeuden izena emanda enplegu eskatzaile modura, eta bulegoak eurentariko 113ri tramitatu zien lanpostua. Lan eskaintza horietariko gehienak (%33,65) partikularrengandik etorri ziren. Eta gainerakoak horren atzetik segika etorri ziren: industria, ostalaritza, merkataritza, garbiketa, ile-apainketa, automobilgintza, administrazio publikoa eta eraikuntza. Laneratzei dagokienez, memoriak jasotzen du 113 lan eskaintza horietatik 31 Zornotzako Udalak kudeatzen duen lan poltsari eskerrak izan zirela.

Udalak jakinarazi duenez, lan eskatzaile modura inskribaturikoen %72,8 langabezian zeuden momentu horretan, eta %27,2 lanean. 488 lagunek adierazi zuten jardunean zeudela, 154k ez zeudela lan bila, eta 1.306k langabezian zeudela. Memoriak jasotzen duen beste datu bat da inskribaturiko pertsonen %6,5ek Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen zutela. Ikasketei dagokienez, eskatzaile gehienek Lehen eta Bigarren Hezkuntzan zituzten ikasketak.

## Zornotzako enplegu bulegoak 113 lan eskaintza tramitatu zarratu zuen iazko urtea

1.794 lagun egon ziren lan eskatzaile legez izena emanda. Bete beharreko 119 postuetatik 113 bete ziren



Zornotzako enplegu bulegoa.

Horien atzetik, unibertsitate ikasketak zituztenak zeuden; eta, azkenik, maila berdinsuan, Batxilergoa eta Erdi-mailako edo Goi-mailako titulazioa zutenak. 2022ari begira, enplegu

bulegoak helburu hauek finkatu ditu: bilaketa aktiboan dauden pertsonentzako erreferente izatea, datu basearen profilak eguneratzea eta bitartekaritza zifrak hobetzea.

## Zornotzako Guraso Eskolak adikzioak prebenitzeko saioak antolatu ditu

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Zornotzako Gizarte Ekintza Sailak hiru adin tartetara egokituriko prestakuntza saioak antolatu ditu familiaren eremuan egon daitezkeen mendekotasunen prebentzioa sustatzeko helburuagaz. Prestakuntzen helburua da egungo gizartean seme-alabek bizi duten errealitatea familiei azaltzea, eta prebentziorako eta gurasotasun positiborako baliabideak ematea. 14tik 16 urtera bitarteko seme-alabak dituzten familiei, 10etik 13 urtera bitartekoak dituztenei eta 0tik 3 urtera bitarteko umeak dituztenei zuzenduriko saioak izango dira. Saio guztiak Nafarroa Zentroan eskainiko dituzte baina adin tarte bakoitzak bere egun eta ordutegi propioa izango ditu. Izena emateko, 946 30 00 02 telefonora deitu edo [drogamendekotasuna@amorebieta.eus](mailto:drogamendekotasuna@amorebieta.eus) helbidera idatzi daiteke. Saioek aurrera egiteko, gutxienez bost pertsonen eman beharko dute izena.

## Garaiko jubilatuen mantentze-gimnasia saioak egiten hasi dira eguaztenero

**GARAI • EKAITZ HERRERA**

Orain urte bi martxan ipintzekoa zen egitasmoari oraintsu heldu diote Garain, izurriak apaltzera egin duen honetan. Jubilatuen elkarteko kideek mantentze-gimnasia saioak hasi dituzte. Astean behin dabilta kirol saioak egiten, eguazten arratsaldeetan, herriko kultur etxean. Eta badirodi egitasmoak harrera polita izan duela, 13 bat garaitarrek erakutsi dute eta kirol saioetara joateko interesa. 19:30etik 20:30era egiten dute kirol jardura. "Poizarren gauden mantentze-gimnasiagaz, baina, egia esan, saio hauek ez dira elkarteko kide guztientzat aproposak. Gutariko batzuk adinduak gara eta", azaldu dute Garaiko jubilatuen elkartetik.

Horregaitik, hemendik aurrera, txangoak ere berreskuratzen dituzte, elkarteko kide guztientzat aproposak diren bisita gidatuak, izurria ailegatu baino lehenago tarteka egiten zituzten eskapatxo haiek.

**BETI GERTU!**

**ELORRIORA**

**HEMENDIK**

Begiratu aukerak gure webgunean:  
[www.zarateyexpe.com](http://www.zarateyexpe.com)  
Tel.: 946 816 673  
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta





## Errigorako otzara eder bat opari ANBOTOk inauterietako argazki lehiaketan

ANBOTOk gonbit egiten die irakurleei inauterietako argazki lehiaketan parte hartzeko. Martxan da gaurtik aurrera

**DURANGALDEA** • MAIALEN ZUAZUBISKAR Beste urte batez, heldu da mozo-erroak armairutik atera, eurak jantzi eta kalera irteteko unea. Eta, azken urteetan lez, ANBOTOk inauterietako argazki lehiaketa antolatu du eta bere irakurleei gonbit egiten die bertan parte hartzeko.

Parte hartu gura dutenek 688 635 041 telefono zenbakira bidali beharko dute argazkia, martxoaren

3ra bitartean. Bestalde, martxoaren 4tik martxoaren 9ra bitartean, argazkirik gustukoena aukeratzeko aukera egongo da [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunearen bitartez.

Egun horietan botorik gehien jasotzen duen argazki irabaziko du ANBOTOk antolaturiko inauterietako argazki lehiaketa, eta, horregaz batera, Errigorako otzara eder bat eskuratuko du.

### Politikan

Neskutz Rodriguez Ormazabal  
Herriaren Eskubidea



### Injerentziarik ez

Lan erreformarekin Madrilgo parlamentuan gertatutakoa ez zen soilik ikuskizun negargarria izan. Ez gara bakarrik esperpentearekin geratu behar. PPko diputatu baten botoa Gobernua bultzaturiko erreformari argi berdea emateko erabakigarria izatea bazen barrugarria, baina ez gertatutako gauzarik garrantzitsuenak. Ezta gutxiagorik ere.

UPNko diputatuen azken orduko boto aldaketari erreparatu nahi nioke. PSN-PSOE eta UPNk egindako akordio, itun edo kromo trukaketari, hain zuzen ere. Bi politikari navarriten aldeko botoa, Iruñeko udal gobernuaren aurrekontuei baiezkota eman eta Enrique Maya alkatearen aurkako gaitzespen-mozioa ez babestean truke. Hau da, Madril gertatzen dena Iruñean erabakitzea eta Iruñekoa, aldiz, Madril. Magia politikoa.

Berdin dio UPNren bozemaielen nahia zein den. Bost axola PSNko militantziak zer uste duen. Gaitzespen mozioa adierazpen arrazista batzuk egin izanagatik aurkeztu bazen ere. Arrazakeria borrokatu behar dela uste duzun arren, babesten duzun alderdiko buruek beste interes batzuk dituzte eta hori ere, enegarrenez, irunsi behar.

Kasu honek inoiz baino argiago utzi dit zein garrantzitsua den gurean gertatzen dena bertan, eta bertakoek, erabaki beharra. Ez dut inoren sukurtsalik babestu nahi. Hemen gertatzen direnak hemendik eta herritarrengan pentsatuz konpontzea nahiko nuke eta ez alderdi politikoen interesen arabera. Ez dut inongo esku-hartzerik nahi. Kontua da Durangon badagoela horrela funtzionatzen duen aukera bat. Eskerrak!

### Durangaldea asteen

#### Otxandion egur sorta gura dutenek martxoaren 2ra arte eman dezakete izena

**Otxandio** | Otxandioko Udalak bere jabetzako lurretan dauden egur materiala erosteko aukera eskaintzen die urtero herritarrei. Aurten ere zabaldu dute eskaria egiteko epea. Interesa dutenek martxoaren 2ra arte izango dute aukera izena emateko, Otxandioko udaletxean.

#### Berrizko Udalak Berdintasun Zerbitzua lehiaketa publikora atera du

**Berriz** | Berrizko Udalak Berdintasun Zerbitzua lizitaziora atera du, 21.520 euroko aurrekontuagaz. Udaletik jakinarazi dutenez, lizitazioak bederatzi hilabeteko iraupena izango du eta beste hiru urtez luzatzeko aukera egongo da. Interesa duten enpresek otsailaren 26ko 14:00ak baino lehenago aurkeztu beharko dute eskaintza.

#### Zornotzako Udalak emakume migratuen arteko bigarren topaketa antolatu du

**Zornotza** | Zornotzako Udaleko Berdintasun Zerbitzuak herriko emakume migratuen arteko topaketa antolatu du. Topaketaren helburua kolektibo horri ikusgarritasuna ematea da, eta haiek izan ditzaketen kezak, zalantzak eta beharrezkoak aurrez aurre ezagutzea eta partekatzea. Topaketako lehenengo saioa gaur izango da, 16:30ean, Musika Eskola Zaharrean.



#### Goyaren, Haesen eta Fortunyren grabatuak erakutsiko dituzte Durangoko museoan

**Durango** | Durangoko Arte eta Historia Museoak erakusketa berri baten ateak zabalduko ditu gaur, otsailak 25. Francisco de Goya, Carlos de Haes eta Mariano Fortuny margolari eta grabatzaile ospetsuen hamalau lan ikusi ahal izango dira bertan. "Maisu hauek artearen munduaz harago joateko gai izan dira, masak erakartzeko, beste artista batzuegan eragiteko eta gaur egun arte eredu izaten jarraitzeko", azaldu dute Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariak eta Juanan Bueno zinegotziak.

Erakusketa apirilaren 24ra bitartean egongo da ikusgai.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**hitz**

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

liburudenda


#salduenak



DENA AMETSA DEN IRUDIPENA  
Leire Vargas (Elkar)



ERAIKUNTZARAKO MATERIALA  
Eider Rodriguez (Susa)



KARENA  
Alaine Agirre (Elkar)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso



Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404



Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403





# EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoak 8

**Gaurko berdintasuna,  
biharko jasagarritasuna**

Tratu txarren biktima diren emakumeentzako  
arreta psikologikoa eta zerbitzu juridikoa.

946 200 492



Martxoak

Emakumeen  
Nazioarteko  
Eguna



# "Apurka-apurka alaitasuna bueltatzen dabilela ikusten gabilta; jendearen animoan igartzen da hori"

Martxoaren 5ean Euskal Herriko emakume nekazarien eta artisauen azoka egingo dute Zornotzako Zelaieta parkean

**EMAKUME EKOIZLEAK** • EKAITZ HERRERA  
Itxaso Uzcanga Meabek (Valentzia, Venezuela, 1977) euskal jantzi tradizionalak ekoizten ditu Zornotzako Jaialdi denda eta lantegian.

**Datorren zapatuan egingo den azokarako gogotsu?**

Bai, bertan egongo garen bigarren aldia izango da. Gogotsu gaude. Negozio honen ardurak 2020ko otsailean hartu genuen, eta martxoaren hasieran postua ipini genuen Emakume ekoizleen azokan. Handik gutxira etorri zen izurria. **Zergaitik da garrantzitsua zuentzat Emakume ekoizleen azokan parte hartzea?**

Emakumeok lan handia egiten dugulako orokorrean. Eta gure lantoki honi dagokionez, artisautza lan handia egiten dugulako. Dena zerotik hasten dugu. Diseinuak hemen egiten ditugu, jantziak hemen ekoizten ditugu. Gure ekoizpen bakoitza bakarra da, originala. Azokak gure lana ezagutzera ematen laguntzen du.

**Zelaieta parkeko azokatik pasatzen denak zer ikusiko duen postuan?** Baserritarren zein arrantzaleen jantzi tradizionalak ikusiko dituzte. Gure kamiseta brodatuak, zapiak. Orokorrean, euskal jantzi tradizionalak.

**Jaialdi denda eta lantegiak zer nolako harrera izan du orain arte?**

Negozio honek 17 urte zeramtan martxan, guk hartu genuen arte. Zalantza hori bagenuen. Jabez aldatuta negozioak berdin tiratuko ote zuen, okerrera egingo ote zuen, jendeak etortzen jarraituko ote zuen. Baina erantzuna ona izaten ari da. Pozik gaude.

**Negozioaren ardurak izurria hasi bezperan hartu zenuten. Zer nolakoak izan dira urte bi hauek? Egokitu zarete egoerara?**

Ez da ezelango jairik egon eta horrek izugarri eragin digu. Ez dira ospakizunei loturiko jantziak saldu. Batere ez. Beraz, geure burua berrasmatu behar izan dugu. Maskarak egin ditugu, lantegietako arropak. Enpresei gure



Itxaso Uzcanga, lankideekin batera ekoizten dituen jantziekin inguratuta.

**Emakumeok lan handia egiten dugu orokorrean, eta guk, hemen, artisau lan handia egiten dugu**

zerbitzuak eskaintzen ibili gara lantegietarako arropak bertan egin ditzakegulako. Bidea gatxa izan arren, ikasi ere egin dugu. **Egoera hobetzen ari ote da? Igarri duzue ezer?**

Apurka-apurka alaitasuna bueltatzen dabilela ikusten dugu.

Jendearen animoan igartzen dugu hori. Badirudi jaiak era batera edo bestera ospatu ahalko direla. Jendea tentuz dabil, baina alaitasun apur bat antzematen hasita gaude. Eta eskerrak. Bestela denok psikologoarenean amaituko dugu-eta! (barrez).

## Emakumeen Nazioarteko Eguna

### ARGAZKI ERAKUSKETA

Martxoak 1-31  
Zelaietan  
Egilea: Alejandra Bueno  
"Ez naiz zure loreontzia"  
"No soy tu Florero"

Martxoak 11  
Alejandra Buenorekin, Sorkuntza fotografikoko tailerra  
Izen ematea Zelaietan  
17:00-20:00

### KONZENTRAZIOA ETA ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN IRAKURKETA

Martxoak 8  
Herriko Plazan  
12:00

### OHARRA:

Udalak babestu egiten ditu martxoaren 8a dela-eta elkarte feministekdeituko dituzten manifestazio eta ekintza guztiak, eta hauetara joateko gonbita egiten du

### XXIV. EMAKUME NEKAZAL ETA ARTISAUEN AZOKA

Martxoak 5  
Zelaieta parkea  
12:30  
"Marixelarre Saria"  
"Disdira Ahots Taldea" zuzenean

Amorebieta - Etxano

Martxoak  
8

### ANTZERKIA

Martxoak 4  
Zornotza Aretoa  
20:00  
Winona & Grace

### GAZTEEI ZUZENDUTAKO EKINTZAK - GAZTETXOKO

Martxoak 4  
Zapi feminista tailerra

Martxoak 6  
Pelikula, "Erlauntza"

Martxoak 8  
Emakumeen memory  
Eskulanak

Martxoak 5  
Emakumeak munduan  
Antzerkia: "Butterfly Effect"

Gauero:  
Berdintasun scape- room  
Esku lanak

### MUSIKA

Martxoak 10  
Zelaieta  
20:00  
Abeloved tribute to Nina Simone's Music (Eunice)

### IPUIN KONTALARIA/CUENTACUENTOS

Martxoak 5  
Liburutegia  
(umeei zuzenduta)  
12:00  
Maite Frankorekin "Arrosa eta leuna"

### HEZKIDETZA ESPAZIOA

Martxoak 2  
ZELAIETA  
18:00  
Inskripzioaren bidez





Jone Urizarbarrena, Alaitz Gallastegi eta Ixone Mendizabal.

## “Neskon artean konfiantza sortzeko gune aproposa da taldea”

TALDE FEMINISTA • M. ZUAZUBISKAR

**Azken urtean, neska gazteen pare bat talde loratu dira Durangaldean, eta olatu horren indarragaz hirugarren bat ere sortu da eskualdean. Kasu honetan, Elorrioko neska gazteak gogotsu datoz eta herriko emakume gazteak saretzea eta babesgune izatea dute helburu, besteak beste.**

**Elorrioko neska gazteen taldea aurkeztu berri duzue. Zein da taldearen asmoa?**

**Ixone Mendizabal:** Neska gazteen taldeak Euskal Herriko neska gazteen taldeari erreferentzia bat ematen dio. Neska garen aldetik jasaten ditugun zapalkuntzei aurre egitea eta gaztetasunetik gure ikuspuntua ematea du helburu taldeak.

**Zergaitik erabaki duzue Elorrioko neska gazteen talde bat sortzea? Horretarako beharrezkoen bat zegoela sentitu duzue?**

**Jone Urizarbarrena:** Udan hainbat eraso egon zen herrian, eta Elorrioko neskok bilera ireki bat egin genuen. Berrogei bat neska gazte batu ginen eta ikusi genuen Elorrioko bazegoela gogoia neska gazte talde bat sortzeko. Baina, gero, bata zela edo bestea zela, alde batera utzi genuen eta ez genion jarraipenik eman.

Orain, ostera, taldea sortzeko eta taldeari forma bat emateko aukera aproposa dela erabaki dugu.

**Neska gazte diozuenean, nori zuzenduta dago?**

**Alaitz Gallastegi:** Egia esan, orainoz ez dugu ezer ere finkatu.

**I. M.:** Ez dut uste adin finko bategaz lotuta dagoenik. Gazte berbak berak daukan subjektibitate horrek duen erreferentzialtasun bategaz baino.

**A. G.:** Azken batean, giro batean biltzen garen neskok batu gura dugula esango nuke, antzeko interesa dugun herriko neskok.

**Azken bolada honetan, neska gazte feministen hainbat talde sortu da eskualdean, tartean lurretan eta Abadiñon. Izan duzue eurekin hartu-emanik zuen taldea sortzerako orduan?**

**I. M.:** Bai, badugu hartu-emana. Ekainean egindako Durangaldeko Biribilketa feminista horretatik dator hartu-eman hori. Guk ez genuen talde modura parte hartu, baina bai maila pertsonalean, eta hortik hartu-eman batzuk sortu ziren.

**A. G.:** Biribilketan ikusi zen herriko talde horiek zelako indarra duten, zelan babesten diren euren artean eta zelako konfiantza duten. Euren herrietan euren ahotsa entzunarazi dute eta geroago eta leku gehiagotan erakusten dute euren burua. Horrek gogoia eta bultzada ematen ditu norbere herrian ere neska gazteekin batzeko, konfiantza hori izateko eta elkarren artean babesteko.

**J. U.:** Gainera, orain, taldearen sorreran, euren babesa eta laguntza izan ditugu. Barikuan, taldearen

aurkezpena izan genuen eta herri batzuetako neskek bertaratu ziren. Euren esperientziak kontatu zizkiguten: zelan sortu zuten euren taldea, zelakoa den...

**Beste taldeen hastapenak ezagutzea lagungarria izango da.**

**I. M.:** Oso lagungarria, eta motibagarria ere bai. Azken batean, gu taldea sortzen gabilta eta euren testigantzak garrantzitsuak izan ziren. Taldeak gorakadak eta beherakadak izango dituela esan ziguten, eta hori normala dela, talde guztietan gertatzen dela, baina eskualdeko marko hori beti egongo dela hor, indar batez edo besteagaz.

Gurea, momentu honetan, talde txikia da eta badakigu hasierak beti direla apur bat gogorrak. Baina deialdia zabala da eta Elorrioko neska gazteek sentitu behar dute eurek ere parte hartu behar dutela.

**Zergaitik animatuko zenituzkete herriko neskek taldearen parte izatera?**

**J. U.:** Herriko neskon artean saretze bat eman eta konfiantza sortzeko gune aproposa delako.

**A. G.:** Baita interes komunak ikusteko, gure artean interesekoak diren gaiak lantzeko eta formakuntzak egin ahal izateko ere, besteak beste.

**I. M.:** Eta baita datorren olatu feminista honetara batzeko ere. Olatu hori badator Elorriora ere, eta neska gazteen ahotsa entzutera heltzeko prozesu honetan eurek ere horren parte izateko gune aproposa da taldea.

**Talde modura, baduzue ekintzarik prestatuta?**

**J. U.:** Autodefentsa feminista tailer bat lotzen ahalegintzen gabilta, baita buruberoki tailer bat ere.

**I. M.:** Eta Martxoak 8ari begira, indar pilaketa bat lotzea da gure asmoa.

**Andrazaharrok boteretuz...**

**Elorrioko emakumeak\* martxoaren 8an plazara!**

**Emakumeen Nazioarteko Eguna**

**Hezkidetzak kalera** Goizez / Ganondo, frontoia eta plaza

Ikastetxeetako maila guztietan berdintasunaren aldeko lanketa herrira zabalduko da.

**Elorrioko Asanblada Feministak deituta: 18:30ean Herriko Plazatik hasita manifestazioa.**

**GORA BORROKA FEMINISTA!**

Martxoak 8 Martitzena

Martxoak 5etik 15era bitartean egitarau zabala: [www.elorrio.eus](http://www.elorrio.eus)

Elorrioko udala

Informazio gehiago: [berdintasuna@elorrio.eus](mailto:berdintasuna@elorrio.eus) | 946 570 809 | [www.elorrio.eus](http://www.elorrio.eus)

f Elorrioko Udala @elorrioko\_udala elorrioko\_udala



# “Idazle kopuruan baino gehiago, emakumeen lanari prestigioa emateko orduan falta da asko berdintasunerako”

Laura Mintegiren ibilbideari errepassoa egingo diote lurretako Ibarretxe Kultur etxeko solasaldian, martxoaren 3an

**ELKARRIZKETA • JOSEBA DERTEANO**  
Aurreko urteetan, Karmele Jaio, Itxaro Borda, Arantxa Urretabizkaia eta Mariasun Landa igaro dira lurretatik Martxoaren 8aren harira, izen handiko idazleak, eta aurtengo gonbidatua ere ez da nolana hikoia. Martxoaren 3an, 18:30ean, Laura Mintegi idazle, irakasle eta politikari ohia jesarriko da Ibarretxe Kultur Etxean, eta, Josune Muñozek gidatuta, Mintegiren ibilbide luzeari errepassoa egingo diote.

**Gustura sentitzen zara solasaldi informal estiloko formatu horretan?** Bai. Azkenean, pribilegio bat da entzuleekin aurrez aurre egon ahal izatea eta sentitzea zuri entzuteko interesa dutela. Nire kontakizunak batzen diren lagunen espektatibetara egokitzen ahalegintzen naiz. Azken batean, ez baita berdina nerabeak, adin er-tainekoak edo adinekoak batzea. **Solasaldia M8aren harira antolatatu dute. Zelan bizi duzu egun hori?**

Sentimendu gazi-goza daukat egun horrekin. Egon izan dira urteak uko egin diodana honelako ekimenetan parte hartzeari. Emakumeak urteko egun bakar batean baino existitzen ez ginen inpresioa nuen, eta, gainera, gai berberaren inguruan bakarrik hitz egiten genuela: emakumea eta literatura. Izan zaitezke espezialista XVIII. mendeko an-

**Nire ustez, Mariasun Landa izan da Euskal Herriak eman duen idazlerik handiena, edozein idazleren**

tzerkigintzan, eta gizona bazara horren inguruan hitz egingo duzu, baina emakumea bazara emakumeaz eta literaturaz hitz egingo duzu.



**Laura Mintegi Lakarra**

Idazlea eta irakaslea

LIZARRA | 1955

Gero, nire kontraesan betean, data honen inguruko ekimenetan parte hartzen segitu izan dut. Azkenean, nire belaunaldiak ez du berdintasunik ikusiko eremu honetan. Ez dut uste gizona eta literatura izeneko hitzaldirik antolatuko denik.

**Eta hurrengo belaunaldiek ikusiko ote dute berdintasunik eremu horretan?** Tira, errealtate bat ere badago. Gero eta ikusgaitasun handiagoa dugu eta gero eta normalizatuago dago emakume idazleak izatea edozein eremutan. Baina oraindik falta da ikusgaitasuna erabat normalizatuta egoteko. Idazleen zerrendan, emakumeen kopurua %15ekoa zen lehen, eta gaur egun ez gara oraindik %30era heltzen. **Parera heltzeko asko falta dela uste duzu?**

Bai, baina idazle kopuruan baino gehiago, emakume idazleen balorazioan edo euren lanari prestigioa ematerako orduan falta da asko. Emakumeari gehiago kostatzen zaio idazletzat hartua izatea gizonezko idazleekin konparatuta. Askoz ere hobeto egin beharko du eta askoz ere gehiago argitaratu beharko du. Gero, badago elementu bat asko arduratzen nauena. Haur literaturan, gehienak emakumeak dira. Nire ustez, Mariasun Landa izan da Euskal Herriak eman duen idazlerik handiena. Edozein idazleren ginetik,

zalantzarik gabe. Baina haur literatura egiten duenez, bazterrean edo periferian geratzen da.

**Gero eta ikusgaitasun handiagoa dugu eta gero eta normalizatuago dago emakume idazleak izatea edozein eremutan**

**Euskal literaturan aitzindarietarikoa bat izan zara gai horiek mahai gainean ipintzen beste sortzaile batzuekin batera. 1987an, Jakin aldizkariako ale monografiko batean jaso ziren kezka horiek, eta une hori mugarri lez kokatzen dute askok. Ondoren, mahai-inguruak ere eskaini zenituzten. Orduan kontziente zineten egiten zenbiltzatena zein garrantzitsua zen?**

Juan Mari Torrealdaik monografiko hori egiteko aukera eskaini zigun eta aukera ona izan zen hainbat ikuspuntu jasotzeko. Horren ostean, gure lan literarioarekin zerikusirik ez zeukan kritika gupidagabeak egin zizkiguten. Egileak emakume izateagatik kritikatu zen lan hori. Esperientzia hori oso mingarria izan zen. Itxaro Bordak, Arantxa Urretabizkaia eta hirurok bizi izan genuen egoera hori. Torreal-

daik *Euskal idazleak*, gaur maisulan mardulean jaso zuen kritika literario horiek ezer gutxi zeukatela literariotik. Baina ez zuten lortu gu amiltzea. Alderantziz, pizgarria izan zen guretzat. Gaur egun hirurok jarraitzen dugu literaturgintzan. Nik ez dut ezer argitaratu azkenaldian, baina idatzi bai, idatzi dut, eta aurrerago argitaratuko dut.

**Laster ikusiko dugu zure lan berriren bat?**

Argitaratuko dut zerbait, hori badakit, baina ez dakit laster izango den; epe laburrean seguruenik ez. Idazteko grinarekin jarraitzen dut eta badut nobela bat amaituta, baina oraingoz ez argitaratzea erabaki dut argitaletxearekin batera. Idazten den guztia ez da zertan argitaratu. Gero eta exigenteagoa naiz neure buruarekin. **Konpromiso politiko handia erakutsi duzu zeure ibilbidean. Eusko Legebiltzarrean bozeramaile ere izan zinen urte bian. Zelan gogoratzen duzu sasoi hura? Sentitzen duzu ezerean faltarik?**

Ez dut sasoi horren faltarik nabaritzen. Alderantziz, garai bakarra izan da nire bizitzaren jabe izan ez naizena, eta ez da sentazio atsegina. Orduan hartutako erabakiaz eta neurri batean anonimotasuna berreskuratu izanaz oso pozik nago. Ez nuke ezergatik ere aldatuko.

**IURRETA** **EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA** **MARTXOAK 8** 2022

**MARTXOAK 3**  
EMAKUMEAK ETA LITERATURA BERBALDIA  
**LAURA MINGTEGI**  
18:30 - IBARRETXE KULTUR ETXEA  
DINAMIZATZAILA  
JOSUNE MUÑOZ (EUSKARAZ)

**MARTXOAK 11**  
17:00 IBARRETXE KULTUR ETXEA  
"PIZTUI EMAKUMEON ENERGIA"  
Eidabe Ekinen Kulturala (euskaraz)

**MARTXOAK 12**  
ANTZERKIA **IESE NO!**  
BANARTE ANTZERKI TALDEA  
19:00 IBARRETXE KULTUR ETXEA  
(guztelaraz)

**MARTXOAK 8**  
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA  
**KATE-MOREA** 11:45 - 12:30  
GOIZEAN, IKASTETXEETATIK HERRIGUNERA.  
18:00 ASKONDO  
ADIERAZPENAREN IRAKURKETA  
ONDORREN ASKONDOEN HASITA, BERTAN BILDU DIREN HERRITARREKIN KATE-MOREA OSATUKO DA HERRIKO KALE NAGUSIETATIK ZEHA.  
DENON ARTEAN EGINDAKO KATE-MOREA GRABATUKO DA (BIDEO BAT EGITEKO).  
ZATOK MOREZ JANTZITA!!

**MARTXOAK 13**  
**MILLA MOREA**  
Herritarrek eta...  
12:30 ASKONDO  
Berdintasunaren alde  
Herrigunetik zehar  
Eropa martzorekin parte hartzea animatu  
ONDORREN  
TXISTORRADA!!  
DINAMIZATZAILA  
IRAIA GARCIA ETA GU BE BAI RUNNERS (IURRETA)

Argitoki gineko: Ibarretxe Kultur Etxea  
E-maila: gineko@ibaretxe.com | Tel.: 94211211

HERRIKO ELKARTEAK



# Martxoaren 8ko aldarriekin bat eginez, Dominika talde feministak Santamañezarrera irteera antolatu du

Manifestaziora deitu dute Martxoaren 8rako. Udaletxeko plazatik irtenda, herriko kaleak zeharkatuko dituzte



lazko Martxoaren 8ko mobilizazioko argazkia.

## ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Dominika talde feministak bat egin du Martxoaren 8agaz. Egun horretarako, buruberoki tailerra antolatu dute. Udaletxeko plazan egingo dute, 18:00etan. Bestalde, 19:30ean manifestazioa egingo dute, udaletxeko plazatik irtenda. Berdintasunaren aldeko aldarriak zabalduko dituzte herriko kaleetan zehar. Martxoaren 13rako, beste ekimen bat aurreikusi dute. Herriko emakumeei Santamañezarrera joateko dei egin diete. 10:00etan ipini dute hitzordua, udaletxeko plazan. 11:30ean argazkia aterako dute tontorrean.

## Egitarau zabala

Zaldibarko Berdintasun Sailak hainbat ekitaldi antolatu du Martxoaren 8agaz lotuta. Jendaurrean berba egiten ikasteko ikastaroa hasita dago dagoeneko. Martxoaren 28an egingo dute hurrengo saioa, 18:00etan, liburutegi zaharrean.

Berbaldi bi ere antolatu dituzte datozen egunetarako. Martxoaren 3an izango da bat: *Sexualitatearen*

*aldaketak adinarekin, mitoak eta errealitateak.* 18:00etan izango da, liburutegi zaharrean. Beste berbaldia martxoaren 10ean izango da: *Norbere zaintza emozional feminista.* Hau ere liburutegi zaharrean izango da, 18:00etan. Otsailaren 28ko, eta martxoaren 3ko eta 10eko ekintzetarako, adinbakoentzako zaintza

**Emakumeen afaria eta dantzaldia antolatu dituzte martxoaren 5erako. 21:00etan, Olazarren**

**'Norbere zaintza emozional feminista' berbaldia martxoaren 10ean izango da**

zerbitzua egongo da. Aldez aurretik eskatu behar da. Izena emateko, [berdintasuna@zaldibar.eus](mailto:berdintasuna@zaldibar.eus) helbidea eta 946827016 telefono zenbakia ipini dituzte.

Aldarrikapen eguna izateaz gainera, Martxoaren 8a ospakizun eguna ere izaten da. Horregaitik, emakumeen afaria eta dantzaldia ere antolatu dituzte Zaldibarran. Martxoaren 5ean izango dira, 21:00etan, Olazarren.

## M8 - EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



**OTSAILAK 21-28**  
ASTELEHENA

**NOLA HITZ EGIN JENDE AURREAN? IKASTAROA**  
18:00 LIBURUTEGI ZAHARREAN

**MARTXOAK 3**  
EGUENA

**"SEXUALITATEAREN ALDAKETAK ADINAREKIN, MITOAK ETA ERREALITATEAK" HITZALDIA**  
18:00 LIBURUTEGI ZAHARREAN

**MARTXOAK 5**  
ZAPATUA

**EMAKUMEEN AFARIA ETA DANTZALDIA**  
21:00 OLAZARREN

**MARTXOAK 10**  
EGUENA

**"NORBERE ZAINZA EMOZIONAL FEMINISTA" HITZALDIA**  
18:00 LIBURUTEGI ZAHARREAN

**Zaldibarko Udalak bat egiten du Mugimendu Feministak eta Emakumeen Elkarteek antolatutako ekitaldiekin**



OTSAILAREN 21ean eta 28an, eta MARTXOAREN 3an eta 10ean, ADINGABEENTZAKO ZAINZA ZERBITZUA EGONGO DA AURREZ ESKATUZ GERO.

[berdintasuna@zaldibar.eus](mailto:berdintasuna@zaldibar.eus) / 946 827 016



# “Mugimendu lodiaktibistak obesitatea sustatzen duela diote batzuek, baina ez da egia; gizartearen presioak bai eragiten du buruko osasunean”

Malen de la Fuentek berbaldia eskainiko du martxoaren 5ean, Abadiñoako probalekuan



**Malen de la Fuente**  
Zumarraga

Gizarte hezitzailea

ELORRIO | 1999

resgarriak ikusten dira. Arakutzen hasita, joera edo egoera pila bat normalizatuta daudela konturatzen zara; adibidez, gainerakoen pisuari buruz berba egitea, edo besteen gorputzei buruz berba egiterakoan.

**Zer da lodifobia?**

Gorputz lodia izateari diogun beldurra, bazterketa eta intolerantzia. Baina lodifobia ez dio bakarrik pertsona lodiari eragiten; argal daudenek argal jarraitzeko presio hori dute. Loditzeko beldurrak hainbat erabaki dakar atzetik; esate baterako, gauza batzuk jatea edo ez jatea.

**Arakutzen hasita, joera lodifobiko pila bat normalizatuta daudela konturatzen zara; adibidez, jendearen pisuz berba egitea**

**Lodifobia eragin handiagoa du emakumeengan?**

Lodifobia genero guztiei eragiten die. Hala ere, gaiari buruz berba egiteko, beharrezkoa da espazio ez-mistoak sortzea, emakumeoi modu desberdin batean eragiten digu eta. Azken finean, kontrol mota bat delako. Dieten bitartez inposatzen diguten edertasun ideal baten menpe bizi gara. Edertasun ideal hori, gure kasuan mendebaldeko kanonen arabera dena, burgesiatik eta gizonezkoen nahietatik sorturikoa da; kultura bakoitzak bere edertasun ideala du, eta bakoitzean edertasun ideal bat goiraipatzen da, eta garai bakoitzean ere gorputz desberdinak goiraipatu izan dira. Kapitalismotik dator, gorputz lodia inproduktibitatea

**Kapitalismoak beharrezkoak ditu gorputz produktibotzat dituenak; besteak baztertu egiten ditu**

gaz lotzen delako, nagitasunagaz. Gorputz lodia duen pertsona inproduktibotzat hartzen da, nagitzat. Lodiok dugun estereotipoetariko bat da, aurreiritzi hutsa, baina beste edozein gorputz mota duena bezain produktiboa izan daiteke. Kapitalismoak beharrezkoak ditu gorputz produktibotzat dituenak; eta besteak baztertu egiten ditu.

Ez da estereotipo bakarra. Gure gizartean, kristautasunak sekulara eragina izan du, betidanik. Honen arabera, gehiegikeria eta nagitasuna txarto ikusita daude eta gorputz lodiak bi lotura zuzena du 'pekatu' bi horiekin. Kristautasunak moralki zer dagoen ondo edo zer txarto epaitzen du, eta

kasu honetan loditasuna moralki ere txarto ikusita dago. Sexualitateari buruz ere aurreiritziak daude gizartean. Gorputz lodiak zatar ikusten dira, eta, horri lotuta, pertsona lodiei ukatu egiten zaie hartu-eman afektiboak eta sexualak edukitzea, 'zatar' direlako. Edertasunaren kanon horietatik kanpora geratzen direnek ez dute halakorik merezi. Kontrako puntuan, fetitxismoa legoke. Pertsona lodiak objektu sexual lez ikusi daitezke, erakarri arren, sexurako bakarrik ikusten direlako. Hau da, tabu bat dago gai horren inguruan. Pertsona lodiak txarto ikusita daudenez, eurekin harremanak izatea ere txarto ikusia dago, jakina.

Horrez gainera, askok osasunaren aitzakia hartuta kritikatzeko dituzte pertsona lodiak. Baina, zein punturaino ardua du osasunak hor? Gizartearen presio horrek eragin zuzena duelako osasun mentalean. Mugimendu lodiaktibistak obesitatea sustatzen duela esaten dute batzuek, baina hori ez da egia. Gizartearen presioak, ostera, bai eragiten du. Autoestimazio arazoak eragiten ditu, besteak beste. Adibidez, badaude kasuak non depresio baten ondorioz argaldu den pertsona zoriondu egiten den. 'Zein guapa zauden' esaten zaio, adibidez, baina hori ez da ona. Eztabaida hori dago, eta osasunaren aitzakia hartuta, mugimendu lodiaktibista isilarazten ahalegintzen dira.

**Kontziente gara gure jarrera lodifobikoez?**

Gradu amaierako lana egin nuen, jarrera lodifobikoei buruzko inkesta bat egin nuen Elorrion. Jendeak zioen pertsona lodiak baztertu egiten zirela; jendeak onartzen du bazterketa hori existitzen dela, eta, beraz, badago horren kontzientzia maila bat. Baina bazterketa hori nondik datorren ez dute hain argi, ez da gaian sakontzen, jendea deseroso dago eztabaita horretan. Inkesta hori lagin bat baino ez da. Lodifobia kontzeptu lez ere nahiko berria da. Ni neu COVID sasoian hasi nintzen gai horri buruz irakurtzen. Pentsa, Gizarte Hezkuntza ikasi dut, baina esango nuke berandu deskubritu dudala gaia. Nik neuk ere sufritu dut lodifobia, baina orain arte ez dut barbarik ezagutu zapalkuntza hori izendatzeko. Gertatu direnak ez direla kasu isolatuak izan ulertzen laguntzen du horrek.

**Zer egin dezake norbanakoak jarrera lodifobikorik ez edukitzeko?**

Gaiari buruz berba egitea beharrezkoa da kontzientzia bat edukitzeko. Horretarako, adibidez, beharrezkoa da lodi barbari karga negatiboa kentzea. Berba deskriptibo bat da, eta askotan irain modura erabili izan da. Horrelako detaile txikiekin hasita, eta behin kontzientzia hartuta, gauza handiagoak ere lortu daitezke.

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Malen De la Fuente elorriarrak lodifobiari buruzko berbaldia eskainiko du martxoaren 5ean. Aurretik ere eskaini ditu gaiari buruzko berbaldiak, Iurretan eta Elorrion. De la Fuente gizarte hezitzailea da eta lodifobiaz ez ezik, edertasun kanonez eta aurreiritziez aritzen da hitzaldietan. Berbaldiak ahalik eta parte hartzaileenak izan daitezke ahalegintzen da beti. "Lodifobia bizipenen bitartez aztertzea dut gustuko; komunikabideetan dauden estereotipoak aztertu eta parte hartzaileen bizipenekin lotuta", azaldu du De la Fuente.

**'Lodifobia azaleratzen' da berbaldiaren izenburua. Zelakoa izango da?**

Aurretik ere eskaini izan ditut halako berbaldiak. Lehenengoa, Iurretan egin zen feministaldian. Jendeak parte hartu dezan bideratzen ditut hitzaldiak, eta egunerokotasuneko bizipenekin ahalegintzen naiz jendeagaz konektatzen. Hau da, bizipen horiekin lodifobia bera aztertzen ahalegintzen naiz. Komunikabideetan agertzen diren estereotipoen bitartez ere ahalegintzen naiz aztertzen eta bizipenekin lotzen. Izan ere, telesailetan ikusten duguna errealitatearen ispilua da sarritan. Funtsean, testuinguru teoriko bat azalduko dut, eta, horren ostean, bizipen lodifobikoak partekatuko ditugu. Askotan, eztabaidak sortzen dira horrelakoetan, eta ideia horiek batuta ondorio inte-

**Martxoak**

**EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA**

Programazio berezia martxoaren 3tik 24ra → [www.abadiño.org](http://www.abadiño.org)





'Atzerrian lurra garratz'.



'LOF ladies on fight'

## Mugimendu feministak martxa bat antolatu du Martxoaren 8rako, udaletxetik Olakuetara

Azeri Gorriak, Emakume Migratuak eta Gure Izarrak elkarteek, Berrizko Udalagaz batera, aldarrikapenez beteriko mobilizazioa prestatu dute M8ra begira

### BERRIZ • JONE GUENETXEA

Martxoaren 8a dela eta, datozen egunetan egitarau zabala izango dute Berrizen. Egun horretarako, aldarrikapenez beteriko mobilizazioa prestatu dute. Azeri Gorriak, Emakume Migratuak eta Gure Izarrak eragileek egin dute deialdia martxoaren 8rako, Berrizko Udalagaz batera. 19:00etan Berrizko udaletxetik hasiko den martxak Olakueta plazan izango du helmuga. "Herritar orori dei egiten diogu mobilizazio bateratuan parte har

dezan", azaldu dute deitzaileek. *Elkar zainduz indartsuago gara* lelopean egin dute deialdia. Aldarri hori ikas-tetxeetan ere landuko dute.

### Egitarau zabala

Kalean egindako aldarrikapenez gainera, kultur egitarau zabala antolatu dute Berrizen. Martxoaren 5ean *LOF Master Class* dantza garaikide tailerra egongo da, gaztelaniaz. 11:00etatik 13:00etara izango da, Berrizko Kultur Etxean. Martxoaren 3a izango da izena

emateko azken eguna (*berdintasuna@berriz.eus* edo telf.: 946824036).

Martxoaren 8an, ekintza berezia egingo dute Gaztelekuan, 16:00etan. Eta 19:00etan *LOF ladies on fight* dantza ikuskizuna taularatu dute Kultur Etxean. Eva Guerrero da ikuskizunaren egilea, eta Bego Krego, Estibaliz Villa, Garazi Lopez de Armentia, Leire Otamendi eta Helena Wilhelmsson dira dantzariak.

Martxoaren 12an, *Winona & Grace* antzezlan taularatu dute Ainhoa Artetxe eta Graciela Donoz aktoreek. Istorio honetan, aktore gazte bi zuzendari ezagun baten etxean esnatuko dira, gauean parrandan ibili eta gero; burua nahastuta dute eta apur bat mozkortuta daude oraindino. Apartamentuan bakarrik eta giltzapetuta daudela ohartuko dira. Euren burua patuaren esku uztea erabakiko dute eta elkarregaz biziko dituzten orduetan nortzuk diren deskubrituko dute. Aktore izateaz gogoeta egingo dute. Alex Gerediaga da antzezlaneko zuzendaria.

Beste antzezlan interesgarri bat ere programatu dute Berrizen, martxoaren 17rako: *Atzerrian lurra garratz*. Amancay Gaztañagak zuzendutako obran, besteak beste, herriaz eta deserriaz, emakume sortzaileen egoeraz, migrazioaz, zaintzaz eta arrazismoaz jardungo dute.

Martxoaren 19an, Niña Coyote eta Chico Tornadok kontzertua eskainiko du Kultur Etxean. Bestalde, martxoaren 23an, Zinegoak Bilbao

LGBTB film festibaleko ikus-entzuzkoak proiektatu dute. Martxoaren 26an, Bihar taldeko ipuin kontalaria izango da liburutegian, 12:15ean.

Pastelaren ginga bertso saio literarioak ipiniko du. Martxoaren 27an izango da, Berrizko udaletxeko lorategian, 12:00etan. Uxue Alberdi, Ane Labaka eta Leire Vargas bertsolariek kantatuko dute eta Miren Amuriza izango dute gai jartzaile.



Niña Coyote eta Chico Tornado.

MARTXOAK 8 EGITARAU

5	<p><b>LOF - MASTER CLASS</b> Dantza garaikide tailerra gaztelaniaz 11:00-13:00 Berrizko Kultur Etxean Doan Izena ematea: martxoak 3 azken eguna berdintasuna@berriz.eus / 946 82 40 36</p>
8	<p><b>LOF - LADIES ON FIGHT</b> Dantza Egilea: Eva Guerrero Dantzariak: Bego Krego, Estibaliz Villa, Garazi Lopez de Armentia, Leire Otamendi, Helena Wilhelmsson 19:00 Berrizko Kultur Etxean 10€</p>
	<p><b>GAZTEEN AHOTSA!</b> M8 ekintza bereziak 16:00 Berrizko Gaztelekuan</p>
8	<p><b>M8 IKASTETXEETAN</b> ELKAR ZAINDUZ INDARTSUAGO GARA! Aldarrikatzeko ekintza bereziak</p>
	<p><b>M8 BERRIZKO MARTXA! Udaletxetik Olakueta Plazara</b> Herritar orori dei egiten diogu mobilizazio bateratuan parte har dezan! Deitzaileak: Azeri Gorriak, Emakume Migratuak, Gure Izarrak eta Berrizko Udala 19:00 Berrizko Udaletxean</p>
12	<p><b>WINONA &amp; GRACE</b> Antzerkia Euskaraz Zuzendaria: Alex Gerediaga Aktoreak: Ainhoa Artetxe eta Graciela Doniz 19:00 Berrizko Kultur Etxean 8€</p>
17	<p><b>ATZERRIAN LURRA GARRATZ</b> Antzerkia Zuzendaria: Amancay Gaztañaga Aktoreak: Laura Penagos eta Ander Lipus 12:00 Berrizko Kultur Etxean Doan</p>
19	<p><b>NIÑA COYOTE ETA CHICO TORNADO</b> Kontzertua 19:00 Berrizko Kultur Etxean 6€</p>
23	<p><b>ZINEGOAK Bilbao LGBTB film festival</b> 18:30 Berrizko Zinemaren Doan</p>
26	<p><b>PUSKERRAK ETA ABESTIA</b> Ipuin kontalaria Egilea: Bihar taldea 12:15 Berrizko Liburutegian Doan</p>
27	<p><b>BERTSO SAIO LITERARIOA</b> Idazlea: Miren Amuriza Bertsolariak: Uxue Alberdi, Ane Labaka eta Leire Vargas 12:00 Berrizko Kultur Etxean Doan</p>

**EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA**



# Durangoko Mugimendu Feministak mural margotzea, bazkaria eta manifestazioa antolatu ditu M8rako

Itaia antolakundeak manifestaziora deitu du Martxoaren 8rako, 18:30ean, Ezkurditiko kioskotik hasita

## DURANGO • JONE GUENETXEA

Durangoko eragile feministek bile-  
ra bi antolatu dituzte Martxoaren  
8ko aldarrikapenak prestatzeko.  
"Mobilizazioetara joateaz gainera,  
egunaren antolaketari berari ere  
garrantzia eman gura diogu", adie-  
razi dute. Batzar horietatik abiatu-  
ta, M8ko egitaraua prestatu dute.  
Martxoaren 5ean mural margo-  
tzea egingo dute, Komentukalean,  
10:00etan hasita. Ondoren, bazkari  
autogestionatuan elkartuko dira.  
Martxoaren 8rako manifestaziora  
deitu dute. 19:00etan hasiko da,  
Andra Maritik. Durangoko kaleak  
zeharkatuko dituzte.

Bestalde, Durangaldeko Itaia  
antolakundeak prest dauka Mar-  
txoaren 8rako mobilizazioa. Ma-  
nifestazio bat eginda Durangoko  
kaleak zeharkatuko dituzte *Emaku-*

*me langileen askapenerako sozialismoa  
eraiki!* lelopean.

## Egitarau kulturala

La Dramática Errante antzerki tal-  
deak *Yerma* antzezlanaren taularatuko  
du San Agustin kultur gunean,  
martxoaren 5ean. García Lorcaren  
obra gaur egungo sasoiara egokituta  
aurkeztu du Ane Pikaza aktorea  
buru duen antzezlanak.

Bestalde, martxoaren 7an, One-  
ka pentsiodunen elkarteak *Adineko  
emakumeok ez dugu amore ematen* ma-  
nifestua irakurriko du udaletxeko  
plazan.

Andraguneko tertulia litera-  
rioren partaideek txalaparta ikaslee-  
kin bat egingo dute Ana Malagónen  
testuak errezitatzeko. Andragu-  
nean elkartuko dira, martxoaren  
18an, 18:30ean.



lazko mobilizazio bateko argazkia, Durangon.

**La Dramática Errante  
taldeak 'Yerma'  
antzezlanaren taularatuko  
du San Agustinen,  
martxoaren 5ean**

## Abesti feministak

Abesti feministen IV. lehiaketako  
kontzertu finala San Agustin  
kultur gunean izango da entzun-  
gai, martxoaren 26an. Antolatzaile-  
ek jasotako lan musikalen artean  
epaimahaiak finalerako sailkatu  
dituenak izango dira oholtza gai-  
nean. Gazteei zuzenduriko ekimen  
honen helburu nagusia genero ber-  
dintasuna gai duen sorkuntza eta

hausnarketa bultzatzea da, esparru  
eta ekimen ludiko baten bitartez.  
Bakarlariren jatorrizko abestirik  
onena, taldeko jatorrizko abestirik  
onena, jatorrizko abestia ez den  
bakarlari emanaldirik onena eta  
taldeko jatorrizko abestirik onena  
sarituko dituzte. Bideoak eta abesti  
edo bertsoen letrak [m8lehiaketa@  
gmail.com](mailto:m8lehiaketa@gmail.com) helbidera bidali behar di-  
ra, martxoaren 13a baino lehenago.



## AHANZTURAK EZ DITZAN BERRIZ HIL

### MARTXOAK 5

YERMA. La Dramática Errante.  
Antzerkia gazteleraz  
19:00 San Agustin Kultur Gunea SAKG

### MARTXOAK 7

Oneka. Emakume pentsiodunen elkarteak.  
Deklarazio instituzionala.  
12:00 Udaletxeko plazan

### MARTXOAK 8

Herriko mugimendu feministek  
antolaturiko ekintzetan parte hartu!

### MARTXOAK 18

Literatura solasaldi musikatua  
Andraguneko tertulia literarioen  
partaideak gehi txalaparta ikasleak /  
Ana Malagónen testuak  
18:30 Andragunea

### MARTXOAK 26

Abesti feministen IV. lehiaketako  
kontzertu-finala  
19:00 San Agustin Kultur Gunea SAKG  
Lehiaketako finalistek hartuko dute parte



AUKERA  
BERDINTASUNA  
IGUALDAD DE  
OPORTUNIDADES  
DURANGO  
Udala - Ayuntamiento






BERRIA

merkataritza  
gida sarean

[anboto.org/gida](http://anboto.org/gida)



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko  
merkataritza gida BERRIA  
euskaraz eta sarean!***

**Merkatartza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902**  
**Argazkiak - Datuak - Kokapena**  
(urtean 50€)



## Inauteriak 2022

### ABADIÑO

#### Otsailak 25

**10:00 17:30** Xaibor diskofesta. Traña-Matienako aterpean.

#### Otsailak 26

**18:00** Meri, Mari eta Lari ikuskizuna. Probalekuan.

**19:00** DJ Rubén Costas. Traña plazan.

#### Otsailak 27

**19:00** Asier Bilbao Show. Errota kultur etxean.

### Martxoak 1

**17:30** Marito DJ diskofesta. Zelaietako eskolan eta probalekuan.

### BERRIZ

#### Otsailak 25

**18:00** Diskofesta. Probalekuan

#### Otsailak 26

**12:00** Kantu kolore. Olakueta frontoian.

**19:00** Pasadena. Kultur Etxea.

### IURRETA

#### Otsailak 26

**12:00-15:00** Miren eta Roberto Etxebarria trikitilariekin kaleak dantzaz eta kantuz girotuko dituzte.

**18:00-21:00** Sakatu! Elektrotzaranga.

### Martxoak 1

**17:00** Zumba plazan (euria egiten badu Askondoko karpan). Ondoren, txokolata banatuko da.

### ELORRIO

#### Otsailak 26

**12:30** Kalejira: 'Fanfarrixo'

**17:00** Umeentzako ikuskizuna Kiliklon-Miru. Arriolan.

### Martxoak 1

**17:00** Umeentzako antzerkia Trokolo teatroa. Arriolan.

### MALLABIA

#### Otsailak 26

**17:00** Emakumezkoen gomazko paleta goma txapelketa. Finalerdiak.

**19:00** Txitxiburduntzia parkean. Txorizoa, ogia eta makila norberak eraman behar ditu. Sua eta umeentzako edaria udalaren kontura.

**20:00** Mozorro erromeria. Parkeko aterpean.

#### Otsailak 27

**10:30** Eskolarteko gomazko paleta goma partiduak frontoian.

**11:00** Jolasak eskolan.

**16:30** Zinema Kontzejzarrean.

### Martxoak 1

**14:30** Txoborra magoa eskolan.

**16:30** Txokolatada frontoian.

**16:30-20:30** DJ Oihan Vega, frontoian

**18:30** Playback eta Mozorro lehiaketa. Izen-ematea frontoian egin daiteke, martitzenean bertan, 16:30etik 17:30era, edo liburutegian otsailaren 24ra arte.

### MAÑARIA

#### Otsailak 26

Arratsaldean: Haurrentzako jolasak, merienda eta zumba. Guraso elkarteak antolatuta.

#### Otsailak 27

**17:30** 'Magia Parrastan' ikuskizuna Imanol Ituiñoren eskutik. Mañariko Plazan (frontoian euria egiten badu).

### OTXANDIO

#### Otsailak 26

**12:30** Txupinazoa inauteriei hasiera emateko, 6. Mailako eskutik. Ondoren: mozorro desfilea kalerik kale, kuadrillak edo familiak.

**17:00** DJ AZ Gaubela plazan.

**19:00** Txokolatada. Bakoitzak bere edalontzia eramatea gomendatzen da.

### DURANGO

#### Otsailak 25

**17:00 - 19:00** Haurrentzako surrandi maskara tailerra. Murratortor auzoan. Euria eginez gero, Landako Gunean.

#### Otsailak 26

**12:00 - 14:00** Haurrentzako surrandi maskara tailerra. San Fausto auzoan. Euria izanez gero, San Faustoko frontoian

**16:00 - 18:00** Haurrentzako surrandi maskara tailerra. Otamotzena parkean. Euria izanez gero, Zabalarra eskolan

**18:00** Surrandien eta Hartzaren konpartaren kalejira, txistulariekin eta bandagaz. Kalejira merkatu plazatik hasiko da.

**20:30 - 23:00** Luhartz, Andra Mariko elizpean.

#### Otsailak 27

**17:30** Los Gavilanes mariatxiak, Andra Mariko elizpean.

#### Otsailak 28

**11:30 - 14:00 / 16:30 - 19:30** Umeentzako tailerrak. Paperezko txano tailerra, antifazak, ileapaindegi zoroa eta makillajea. Andra Mariko elizpean.

### Martxoak 1

**11:30 - 14:00** Umeentzako tailerrak, Denboraren Bankuaren eskutik. Andra Mariko elizpean.

**16:30** DJ Markelin. Andra Mariko elizpean.

### ZALDIBAR

#### Otsailak 26

**17:00** Disko mugikorra, udaletzeko plazan (euria eginez gero, kiroldegian).

### Martxoak 1

**17:00** 'Dantzatzeko prest!' mozorro lehiaketa, udaletzeko plazan (euria eginez gero, kiroldegian).

### Martxoak 3

**19:00** 'Emakumeen ahotsak euskal literaturan: atzo, gaur eta bihar'. Miren Agur Meabe, Uxue Alberdi eta Miren Amuriza. Moderatzailea: Leire Vargas. Jesuitetan, Arrupe aretoan.

### ZORNOTZA

#### Otsailak 25

**17:00/ 18:00/ 19:00** Perubeleren eskulan tailerra (Izen-ematea: Gazte Informazio Bulegoa) Ludotekan.

**17:15** Pirritx, Porrotx eta Marimotots. (Sarrerak agortuta) Zornotza Aretoan.

**19:00** Perubeleren aurkezpena. Zelaieta parkeko kioskoan, Udazken taldeko gaiteroekin. Zornotza Aretoan.

**19:15** Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Udabarri Dantza taldeagaz (sarrerak agortuta). Zelaieta parkean.

**20:00** Erromeria Luhartz taldeagaz.

#### Otsailak 26

**12:00** Go!azen 8.0 Zornotza Aretoan (Sarrerak agortuta).

**12:30** Inauteri dantzak Udabarri dantza taldeagaz, Herriko plazan.

**17:00** Umeentzako ikuskizuna: Tomaxen abenturak. Zelaieta parkeko karpan.

**17:30** Go!azen 8.0 Zornotza aretoan (sarrerak agortuta).

**18:00** Perubeleren eskulan tailerra Gaztetxokoan.

**19:00** Triki Piu Pand taldearen kalejira herriko kaleetatik.

**19:30** DJ Oihan Vega Zelaieta parkeko karpan.

### Martxoak 1

**17:00** Polaroid Photocalla ludotekan.

**17:30** Txiki Rock umeentzako ikuskizuna Zelaieta parkean.

**19:00** Perubeleren agurra, Udazken taldeko gaiteroekin.

## Zinema

### :: Berriz KULTUR ETXEA

• **La Abuela**  
barikua 25: 19:30  
domeka 27: 19:00

### :: Durango ZUGAZA

• **Competencia oficial**  
barikua 25: 19:30/22:00  
zapateria 26: 17:00/19:30/22:00  
domeka 27: 17:00/19:30  
astelehena 28: 18:00/20:15  
martitena 1: 18:00/20:15  
eguztana 2: 18:00/20:15

• **El triunfo**  
barikua 25: 19:30/22:00  
zapateria 26: 19:30/22:00  
domeka 27: 19:30  
astelehena 28: 18:00/20:15  
martitena 1: 18:00/20:15  
eguztana 2: 18:00/20:15

• **Un pequeño mundo**  
barikua 25: 19:30  
zapateria 26: 19:30  
domeka 27: 19:30  
astelehena 28: 18:00  
martitena 1: 18:00  
eguztana 2: 18:00

• **Uncharted**  
barikua 25: 22:00  
zapateria 26: 17:00/22:00  
domeka 27: 17:00  
astelehena 28: 20:15  
martitena 1: 20:15  
eguztana 2: 20:15

• **Ainbo: Amazoniako gerraria**  
zapateria 26: 17:30  
domeka 27: 17:30

### :: Elorrio ARRIOLA

• **Belfast**  
zapateria 26: 20:00  
domeka 27: 20:00  
astelehena 28: 20:00  
• **Bella y el circo mágico**  
domeka 27: 17:00

### :: Zornotza ARETOA

• **Muerte en el Nilo**  
domeka 27: 20:00  
astelehena 28: 20:15

• **Tximinoen izarra**  
domeka 27: 17:00



# Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

## Batu Anbotoko whatsapp taldera



**Bidali alta**  
**688 635 041**  
**telefono zenbakira**

\* **Izan zaitez berriemaile ere.**  
**Bidali zure argazki eta bideoak**

**> anboto**



# “Entsegu lokalean hainbeste denbora igaro eta gero, diskoa kaleratzeko baino gehiago, zuzenean jotzeko gogoa dugu”

Ane Barcena durangarrak eta Raquel Pagés osatzen duten Pinpilinussies taldea bueltan da, 'Hipocondría' lanagaz; gaur kaleratuko dute lan berria



Ane Barcena eta Raquel Pagés. CLARA OROZCO

## MUSIKA • ARITZ MALDONADO

**Pinpilinussies taldeak alerta egoera ezarri zen sasoiari argitaratu zuen 'Fuerza 3' diskoa eta bertan behar utzi behar izan zuen aurkezpen bira. Baina hile hauetan gogor lan egin dute entsegu lokalean, eta gaurtik aurrera lan eskerga horren emaitzaz gozatu ahal da. Gaur 'Hipocondría' kaleratuko dute, ibilbide oparo bateko bigarren lan luzea, eta udaberriaren zehar hainbat kontzertu eskainiko dute.**

**Gaur ikusiko du argia 'Hipocondría' lanak. Urduri?**

Luze egiten ari da, aspaldi grabatu genuelako, baina gogotsu gaude. 2020ko azaroan grabatu genituen lehenengo single biak, *Erre* eta *John Berger*, eta gainerakoak 2021eko maiatzean; aspaldi, beraz. Denbora honetan, nahasketekin, masterragaz, diseinuagaz... eta abarrekin lanpetuta ibili gara, baina gogotsu gaude diskoa kaleratzeko. Gainera, denbora honetan abesti bi gehiago kaleratu ditugu eta oso hartu-

eman ona dugun komunikabide bitan zabaldu ditugu: Bandera Negra saioan *Bellaco* abestia estreinatu zuten, eta Gaztean *DEA-8D*. Gogotsu gaude gainerako abestiak ere entzungai ipintzeko.

**“Pandemian egoera berriei aurre egin behar izan diegu, eta konturatu gara, aldaketei eta beldurrei buruz berba eginda, beldurra gutxitu egiten dela”**

**Abestietan melodiak eta distortsioa uztartzen jarraitzen duzue. Esango zenukete topatu duzuela zuen estiloa?** Neurri batean, *Fuerza 3* diskoan ere antzeko zerbait pasatzen zitzaiagun. Raquelek erraztasuna du melodietarako, pop ikutuko doinu-eraketa, eta, nire kasuan,

errazagoa zait doinu indartsuak sortzea; *Hipokondria* diskoan mundu bi horiek batu egin dira, mundu berri bat sortzeko. Batak bestean indargune horiek hartu ditu denbora honetan, eta orain niri errazago ateratzen zaizkit melodiak, eta Raqueli ere errazago zaio lehen ere bazuen indar hori ateratzea. Eta uste dut nahasketa polita irten dela hortik.

**Ibilbide laburra baina emankorra duzue.**

Raquelen eta bion hartu-eman taldeagaz batera hazi da. Alerta egoera igaro eta gero, entsegu lokalera joatea izan zen egin genuen lehenengo gauza. Jo eta su lan egin genuen eta garai hartakoak dira abesti asko.

**Lan berria 'Hipocondría' deitzen da. Osasun egoerak izan du eraginik horretan?**

Hipokondriaren kontzeptua lehenagotik zegoen mahai gainean. Arazoei aurre egitekoak gara Raquel eta biok, min hartu aurretik

aurre egitekoak. Hala ere, pandemian handitu egin da hori. Egoera berriei aurre egin behar izan diegu, eta konturatu gara, aldaketei eta beldurrei buruz berba eginda, beldur hori gutxitu egin dela. Kanta hauek oso terapeutikoak izan dira, eta hipokondria honi aurre egiteko modu bat.

**“Kanta hauek oso terapeutikoak izan dira, eta hipokondria honi aurre egiteko modu bat”**

**'Erre' singlean euskaraz abesten duzu. Badago euskarazko beste abestirik diskoan? Zergaitik aldaketa?**

Hiru abestitan abesten dugu euskaraz. *Erre* da horietariko bat, eta aurkeztu genuen lehenengoetarikoa. *DEA-8D* abestian ere euskaraz

abesten dugu. Abesti laburra da, baina berezia. Hiru lagunek abesten dute gugaz batera, eta oso ondo geratu dela uste dugu. Euskaraz kantatzen dugun hirugarren abestia *Hange* da. Raquel ere animatu da euskaraz koru batzuk egitera, eta horrek ilusio handia egin digu. *Anime* batean inspiratu nintzen abesti hori idazteko. Beldurrari eta hipokondriari buruzkoak dira berbak. Ingelesez abestuta, oskol moduko bat ipintzearen parekoa zen niretzat; ingelesez izaterakoan, entzuleak gutxiago ulertuko zuen, eta, beraz, galdera gutxiago egingo zuen. Neure buruan konfiantza gehiago eduki ahala, letren esangura ulertu gura dut. Bestalde, hautu politiko bat ere bada. Hizkuntza zaindu beharreko zerbait dela iruditzen zait, aldarrikatu beharrekoa. Horrez gainera, bizitza osoan zehar entzun ditudan artista askok euskaraz abesten dute. Berri Txarrak taldeak eta Anarrik, adibidez.

**Beste behin ere, Ari Schneider arduratu da diskoaren arteaz.**

Beragaz lan egin dugu beti. Emakume indartsuak ikusi daitezke azalean eta kontrazalean, eta, zelanbait, Raquelen eta bion isla dira; agerikoa da ez direla gu fisikoki, baina sonoritate apur bat transmititu gura genuen emakume indartsuak erakutsita; emakumeen indarra eta elkartasuna erakutsi gura genituen.

**Martxoan 'Hipocondría tour' delakoari ekingo diozue. Gogotsu?**

Oso gogotsu! Pentsa, lokalean hainbeste denbora eman eta gero, diskoa kaleratzeko baino gogo gehiago dugu zuzenean jotzeko! (barrez). Denbora honetan zehar, kontzertu apur batzuk eskaini ditugu, baina urritik hona jo barrik gaude. Eta orain Euskal Herrian berriro jo ahal izatea edo Bartzelonan ganorazko aurkezpen bat egin ahal izatea itzela da. Asteaz zehar ezin dugu jo, lan kontuengaitik, baina martxoan eta apirilean ia ez dugu atebururik libre. Ekainean ere badabilta irteten gauzak. Udaberri itxuroso bat dugu aurretik!

**Etorriko zarete Durangaldera?**

Euskal Herrira etorri ginen azken aldiak, Bilbon eta Gernikan egon ginen; orainoan Gipuzkoara joango gara, Azpeitian eta Hondarribian joko dugu, San Agustin eta Psyclobenea aretoetan, hurrenez hurren. Ahalik eta publikorik gehienarengana heltzen ahalegintzen gara. Hala ere, gustatuko litzaiguke berriro Durangaldera joatea.





Libe Garcia de Kortazarrek eta Jon Basagurenek osatzen dute Pasadena taldea.

## Pasadena taldeak izen bereko diskoa aurkeztuko du Berrizen asteburuan

Zapatuan izango da Pasadenaren emanaldia, 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean

### MUSIKA • A.M.

Hasieratik biena izango zen proiektu bat osatzeko gogoz ekin zioten Libe Garcia de Kortazarrek eta Jon Basagurenek Pasadena taldeari. 2021eko udazkenean, zortzi abestiko diskoa kaleratu zuten eta orain zuzenean aurkezten dabilta. Zapatuan, hilak 26, Berrizko Kultur Etxean aurkeztuko dute, 19:00etan. Sei euroan salduko dituzte sarrerak (4 euroan bazkideentzat).

Garcia de Kortazarrek eta Basagurenek ibilbide oparoa dute mu-

sikagintzan. Askok Izaki Gardenak taldetik ezagutuko dituzte, baina Libe eta Neubat proiektuetan ere aritutakoak dira. Baina Pasadena da hasieratik biek bat egin duten lehenengo proiektua. "Pasadenan hasieratik parte hartu dugu biok kantuetan; orain arte, bakoitzak bere ideiak aurkezten zituen eta bion artean moldatzen genituen gero. Hemen ez", azpimarratu dute proiektuari buruz berba egitean. Danilo Forondaren eta Dani Arrizabalagaren laguntza izan dute grabazioan; lehenengoak gitarra

elektrikoak eta baxuak grabatu ditu. Bigarrenak, bateria doinuak; Izaki Gardenak proiektuan taldeki-de izan ziren laurak; zuzenekoetan ere formatu horretan joko dute.

### Biniloa eta CDa eskuragarri

Pasadena diskoa Erraiak diskoe-txeak kaleratu zuen iaz. Biniloan eta CDan dago eskuragai. 2021eko irailean grabatu zuten diskoa, Sevilako (Espainia) La Mina estudioan, Raul Perez Fernandezegaz; Cem Oralek masterizatu du, Berlineko Jammin Masters estudioan.

## Gorakada konpainiak saria jaso du Feten azokan

Gorakadaren 'Zuhaitzak landatzen zituen gizona' ikuskizuna Gijongo Feten azokan saritu dute

### ANTZERKIA • A.M.

Zuhaitzak landatzen zituen gizona lanak dramaturgiarik onenaren saria jaso du Europako Arte Eszenikoan Gijongo Feten azokan. Astelehenean egin zuten sari banaketa, Gijonen bertan. Jose C. Garciak eta Kike Díaz de Radak egindako lanagaitik jaso du konpainiak saria. Jean Gionoren lan baten egokitzapena da Zuhaitzak landatzen zituen gizona obra. Elzeard Bouffierren istorioa jasotzen du, hain zuzen

ere. Bizitzaren suntsipenaren aurkako mezu sutua du; Proventzako (Frantzia) eremu zabal batean zuhaitzak landatzen aritu da protagonista urte askoan, eremu suntsitua bizitzaz beteriko gune bilakatzeraino. Ikuskizunik onenaren saria Teatro Paraiso antzerki konpainia gasteiztarraren Leioak lanak irabazi zuen.

Gorakada erreferentziatzko konpainia da Euskal Herrian zein Espainian.



'Zuhaitzak landatzen zituen gizona'.

## Gai librean

### Artearen kontzeptuaz

Artearen kontzeptua ukigarria bezain ukiezina da. Disko bat uki dezakegu, liburu baten orrialdeak uki ditzakegu, margolan bat... Baina gudan edo sortzailearengan sorrarazten duen 'zera' hori ukiezina da. Sortzaileak artea egiten du maite duelako, kazetariak albisteak idaztea maite dezakeen bezala.

Bertsolaritzaz mintzatu zen EKIDA Sozialisten Kultur Ekimena duela aste gutxiko editorial batean. Bertan zioen bertsolaritza merkantilizatu egin dela: "Garai batean afari eta ostatu truke kantatzen zuena, saioetako katxetaren truke kantatzen zuena bihurtu zen pixkanaka". Horrez gain, Twitter-en horrela zioen Manifestua EKIDAREN ikuskizuneko partaideetako batek: "Bertsolaritza lana da, noski, baina horrek nahitaez soldatapeko lana esan nahi duela pentsatzea mar-



Igor Galarza Intxausti  
Kazetaria

### Sortzaileak artea egiten du maite duelako, kazetariak albisteak idaztea maite dezakeen bezala

### Bertsolaritzaz mintzatu da EKIDA sozialisten kultur ekimena duela aste gutxiko editorial batean

ko kapitalistan hesitzea da. Soldata-sistema ez da artea antolatzeke modu bakarra izan beti eta ez du zertan izan gerora".

Afaria eta ostatua bera ere ez al dira, ba, ordainsaria? Uler daiteke bertsolaria bidaian galtzen atera ez zedin eskaintzen zitzaizkiola. Baina horren zein ezerezaren truke bertsotan egi-

tera gonbidatzerako orduan merkantilizatzen da arteagaz eta bertsoagaz: giza kapitalaz baliatzen da eskatzailea, onura propiorako, bere ostatuan antolatuko duen afari batera jendea hurbildu dadin eta dirua irabazteko, zein gozamen pertsonalerako.

Bideraezina da "soldata-sistematik at" geratu behar den diskurtsoa (bidenabar, diskurtso asko dago, baina praktika gutxi). Bertsozale Elkarteak duen ordainsari mailakatuaren sistema bidezkoa den ala ez berba egin daiteke. Baina bertsolariak bertsotan egiteko egin behar duen lana ez balitz saritua izango, bertsolariak benetan gura duenean egingo luke bertsotan, seguruenik konfiantzazko inguru batean beti, kazetariak albisteak ingurukoei bakarrik kontatu eta idatziko zizkiekeen legez. Eta hori atzerapauso bat izango litzateke, batez ere bertsoak irautea gura baldin badugu.





**Eneko Díez  
Puebla**

**Jiu-Jitsu borrokalaria**

**DURANGO | 1999**

**Zer erronka dituzu aurrera begira?**

Dena ondo badoa eta lesiorik ez badut, ekainean Los Angelesen (Kalifornia, AEB) lehiatuko den munduko txapelketara joango naiz. Etorkezunean etorriko diren erronka denei aurre egiteko gogotsu nago.

**Jiu-jitsua kirol olimpikoa izatera heldu daitekeela uste duzu, karatearen eta judoaren moduan?**

Bai, dudarik barik. Are gehiago, erakundeetan eztabaidatzen dabiltzan zerbait da. Estrategia eta alderdi fisikoa uztartzen dituen kirol aberatsa da eta karatearen, judoaren eta olimpikoak diren gainerako kontaktu kirolen mailan egotea merezi du.

**Arte martzial mistoen enpresarik handienean, UFCn, borrokalari askok erabiltzen dituzte jiu-jitsu teknikak.**

Ez dut uste gaur egun inor kaiolan sartzen denik jiu-jitsuko nozio batzuk, gutxienez, izan barik. UFCren sorreragaz ere badu lotura arte martzial mota honek. Brasilgo jiu-jitsua asmatu zuen oinordeko batek sortu zuen UFCa. Hasieran, borrokalariak diziplina bakarrean ziren adituak, boxeolariak boxearekin eta horrela. Baina laster konturatu ziren jiu-jitsurik ez zekitenek aukera gutxi zituztela irabazteko. Horregaitik, denek barneratu zituzten modalitate honetako teknikak euren estilora. **Judoan gerriko beltza lortu duzu?** Oraingoan gerriko marroia dut judoan. Ez dut astirik izan Euskadiko federazioagaz ofizialki beltza lortzeko. Baina horrek ez nau larregi arduratzen. Badakit beltzerako maila badudana. Hala ere, hori jakitea ez da gerrikoa izatearen parekoa. Gerrikoa ipinita izatea beste gauza bat da. Beraz, denbora apur bat dudanean gerriko beltza ateratzera bueltatuko naiz.

# "Dena ondo badoa, ekainean Los Angelesen izango den munduko txapelketara joango naiz"

Jiu-jitsuko munduko txapelketan bosgarren amaitu eta gero, Eneko Díezek garbi du bere hurrengo geralekuak zein izan behar duen

**ARTE MARTZIALAK • J.DERTEANO**  
Apurka-apurka, Eneko Díez lekua egiten dabil arte martzialen mundu konplikatuan. Iazko urrian, Durangotik Madrilera joateko aukera sortu zitzaion, eta harrezkero hango Chekmat taldean dabil, jiu-jitsua lantzen. Aukera berrien bila joan zen, horixe aurkitu du, eta harturiko erabakiagaz ez dela damutzen dio.

**Jiu-jitsua ez da diziplina ezaguna eskualdean. Madrilen garatuago dago?**

Espainian oraindino bide handia dago egiteko kirol honen inguruan, baina bai, Madrilen estatuko beste tokirik gehienetan baino pisu handiagoa du.

**Giro horretan entrenatzeak zure maila hobetzen lagundu duela uste duzu?**

Egia esan, bai. Euren bizitza jiu-jitsuari eman dioten oso entrena-tzaile onak ditut. Euretari bat brasildarra da, mundu osotik ibili da, eta jiu-jitsuko eminentziarik handienak ezagutu ditu. Hori guztia eguneroko lanera transmititzen da. Detailerik txikiena ere lantzen dugu. Egia esanda, oso pozik nago. Hasieratik arreta eta esperantza ipini dituzte nigan. Dohainak ditudala ikusi dute eta euren proiektu pertsonal modura

hartu naute. Oso itxura ona dudala diote. Taldera batu eta hile bira horrelako gauzak entzuteak aurrera jarraitzeko indarra ematen dizu.

**Sentitzen duzu besteen itzaropena betetzeko presiorik?**

Tira, gauzak lasai hartuko ditut. Badakit bide luzea dena; pertsonak gara, akatsak kiroleko

**Eskerrak ematen dizkiot Durangon entrenatzaile izan dudan Iñaki Salasi. Umetatik lagundu dit eta gaur naizenaren parte da**

parte dira eta haietatik ikastea da kontua. Bide honetan jarraitzen badut, badakit lehenago edo geroago emaitzak helduko direna. Judoan dudan esperientzia ere lagungarria izango zaidala uste dut.

**Durango Judo Taldean ibili zara urte askoan. Alde handia dago judotik jiu-jitsura?**

Jiu-jitsuan abaniko zabalagoa dago, judoko araudia apur bat hertsia delako. Baina oinarritzko kontzeptuetan antzekotasunak

dituzte eta horrek asko lagundu dit. Ez naiz zerotik hasi. Alde horretatik, eskerrak eman gura dizkiot Durango Judo Taldean entrenatzaile izan dudan Iñaki Salasi. Umetatik lagundu dit eta gaur naizenaren parte da.

**Egon da sailkapen faserik Europako txapelketan parte hartzeko?**

Ez, izen-ematea irekia zen. Baina izen-ematea ez da merkea eta bidaiako gastuak eta abar kontuan hartuta, txapelketa ona egiteko esperantza dutenek baino ez dute ematen izena. Hau da, maila handiko kirolariak batu ditu. Europa-

ko txapelketarik prestigiotsuena da.

**Bosgarren tokiak zure itzaropenak gainditu ditu?**

Oso pozik nago emaitzagaz. Neure buruari esaten nion maila ona emango nuela, baina beti sortzen dira dudak, eta ez nekien zer itxaron. Brasildar bati eta ingeles bati irabazi nien eta final-laurdnetan gerora txapeldun geratuko zenaren kontra galdu nuen. Akats batzuk egin nituen eta euretatik ikasi behar dut. Aurkari hori tokatu ez balitzait, podiumerako borrokan egon nintekeela uste dut.



Eneko Díez Europako txapelketako borrokaldi bat irabazi eta gero.



# Iurretako igoera faserako sailkapena lotzen saiatuko da liderraren etxean

Asteburuko jardunaldia bakarrik falta da lehen fasea amaitzeko eta Iurretakok asko du jokoan



Iurretarek irabazi zuten Elorriok eta Iurretakok jokaturiko derbia. JON IGLESIAS

## FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Ohorezko Mailako lehenengo fasea asteburu honetan amaituko da eta Iurretakok asko du jokoan. Une honetan bosgarren dago, igoera faseko azken postuan, baina Bermeok ere postu horixe du jomuga eta talde biak puntuetara berdinduta daude.

Beraz, asteburuko azken jardunaldian erabakiko da dena. Iurretakok Erandio liderraren etxean jokatu du. Ez dago esan beharrik partidu gatxa dela, baina badaude baikor egoteko arrazoiak: esaterako, aurten

Iurretako etxean baino indartsuago dabil etxetik kanpora —bost garaipen—. "Sailkapena gure esku dago eta horretan saiatuko gara", dio Jon Gurutz Vazquez entrenatzaileak

## Elorrio aukerarik barik

Elorrio ere igoera faserako borrokan ibili da, baina aukerarik barik heldu da azken jardunaldira. Une honetan, puntuetara berdinduta dago Iurretako eta Bermeogaz, baina asteburuan atsedean hartzea egokitu zaionez, ezin du puntu gehiagorik batu.

Orain asteburu bi, Iurretakok eta Elorriok derbia jokatu zuten Eleizalde futbol zelaian. Orduan, talde biek zituzten aukerak, eta bete-beteko derbia izan zen. Elorrio aurreratu zen, baina Iurretakok buelta eman zion markagailuari, hiru gol sartuta (1-3). Eurretari bi Fernando Amorebietak sartu zituen. Athleticen eta beste hainbat taldetan —Fulham, Middlesbrough...— ibilbide profesional luzea izan eta gero, 36 urteko iurretarra etxera bueltatu da aurten, bere sorterriko klubera, eta azken partiduak titular jokatu ditu.

# Ariznabarretak maratoiko bere marka hobetu du

Oier Ariznabarretak kapitulu berri bat idatzi du Sevillako maratoian. Maratoiko bere marka ia minutu batean hobetu du. Oraindino ez duela goia jo uste du

## KORRIKA • J.D.

2019an, Oier Ariznabarretak (Durango, 1983) bere ibilbideko lehenengo maratoia amaitu zuen, Sevillan. Harrezkero, beste bitan parte hartu eta bietan hobetu du bere marka. Joan zen domekan, 2.16.45ean ezarri zuen bere marka pertsonala, 2020koa ia minutu batean hobetuz.

Maratoiko lehen erdia aurreko talde batean egin zuen, erritmo bizian. Hori dela eta, lan erdietako denbora bikaina izan zen: 1.05.29.

Baina bigarren erdian ordaindu egin zuen ahalegin hori. "Niretzat oso azkar zihozten eta bareak heldu zidan. Bigarren erdian ezin izan nuen ezer edan", gogoratu du. Edozelan ere, bere marka hobetzea lortu zuen eta "oso pozik" dago egindako lanagaz.

Hala ere, oraindino ez duela goia jo eta denbora hori hobetu dezakeela uste du. "Azkenean, 2.14ra heltzea da helburua", dio. Denbora hori buruan duela parte hartuko du hurrengo aldietan.



Oier Ariznabarreta Sevillako maratoiko helmugan.

## Jokaldia

### Lehen faseak emandakoa

Emozioz beterik amaitu da binakako txapelketako sailkapen fasea. Altuna-Martija eta Elezkano-Zabaleta zuzenean finalurrekoetara sailkatu dira eta, ondorioz, astebetean hartu ahaliko dute atsedean. Irribarria-Rezusta, Laso-Imaz, Peña-Albisu eta Ezkurdia-Tolosa bikoteek hil ala biziko play-offetan jokatu beharko dituzte txartelak; eta azken bi sailkatuak, Jaka-Mariezkurrena eta Urruti-Aranguren, aldiz, kanporatuak izan dira.

Liderrak gorabeheratsu ekin zioten txapelketari. Eskuetako arazoak medio, kosta egin zitzaion martxa hartzea, baina minak osatzearekin batera goraldia hasi eta ezin hobeto amaitu dute fasea.

Elezkanok eta Zabaletak erakustaldi latzak eman dituzte. Garaiezinak



Iñaki Iza Zarazua  
Pilota

### Liderrak gorabeheratsu ekin zioten txapelketari, baina minak osatzearekin batera goraldia hasi eta ezin hobeto amaitu dute fasea

ziruditen, hiru partidu jarraian galdu zituzten arte. Zalantzak sortu ziren orduan, baina, hasierako maila berreskuratzeko lortu dute finalurrekoetarako txartela.

Irribarria eta Rezusta zuzeneko sailkapenaren atarian geratu dira azken jardunaldiko hil ala biziko partidua galdu ondoren. Hala ere, behetik gora egin dute eta edozein aurkari dantzan jartzeko beste ahalmen dute.

Asko gustatzen ari zait Laso eta Imaz egiten ari diren txapelketa, nahiz eta sailkapenean behera egin duten

azken bi jardunaldietan galdu ostean. Laso izar handien pare, ondo erakutsi dute kontuan hartu beharreko bikotea direla.

Gaur egungo bikote azpitxapelduna gorabeheratsu ikusi dut. Ahal handiko bikotea da, baina, iaz ez bezala, bikotea osatzea kostatu zaie. Seigarren postua Ezkurdia eta Tolosak lortu dute, meritu handiko eskalada eginda. Ezinezkoa zirudien sailkatzea; baina tartean Ezkurdia dagoenean, ezin da ezer ziurtzat jo.

Kanporatuei dagokienez, Jaka-Mariezkurrena txapelketako dezepziorik handiena izan da. Azken bikotean, ordea, aipatzekoa da Urrutik egindako lana. Azken urteotan galduta zuen konfiantza berreskuratu eta berriro buruz burukorako hautagai sendoa izango dela dirudi.



# DURANGALDE



## Neberondoko askaldegiak

Otsail hotza atzean utzi, eta martxoko eguzkiak etortzeko gogoz daude Neberondoko askaldegiak. Ondo dakitelako, eguzki amandreak gogor sakatzen duenean, hango inguruko parajeak txangozaleekin eta aspaldiko lagunekin betetzen direla. Mugarrako haitzen magalean egonik goxo-goxo dagoelako edonor. Altzoan.



# KO TXOKOAK!

## Mendiolako San Kristobal ermita

Fededunik apenas batzen da bertan. Gehiago dira hango aterpera lasaitasun eta arnas bila jotzen duten bisitariak. Akaso, bizitzaren bidezidorretan galdu izan direlako noiz edo noiz. Gidarien zaindaria izan delako San Kristobal santua. Errepidekoena, eta, zergatik ez, bizitzan gidari baten aholkua behar dutenena.







**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)



**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com



**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • [www.fernandouribe.es](http://www.fernandouribe.es)



**IURRETA**  
**ERAIKUNTZA BERRIA:** lurretako udalaren ondoan. 2 eta 3 logelako etxebizitzak eta 2 komun. Terraza. Trastelekua eta garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.  
**230.000 €tik aurrera**



**DURANGO**  
Erdi berria. Etxebizitza altua. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza handia. C.E.E= E Garaje itxia aukeran.  
**250.125 € C.E.E=E**



**ZORNOTZA**  
ERDI BERRIA. 2 logela, 2 komun, sukalde jantzia eskegitokiarekin. Eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua.  
**253.500 €**



**DURANGO**  
3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du.  
**120.000 € C.E.E=F**



**ZALDIBAR**  
**BILBAO ETORBIDEA:** Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Eguzkitsua. Hegoalde.  
**118.000 € C.E.E= F**



**ZURE ETXEBIZITZA BERRIA**  
2 logelako atikoak eta 3 logelako etxebizitzak. Beheko solairuak lorategiarekin. 28 m<sup>2</sup>-ko terrazak. Garajea eta trastelekua.  
**230.000€ tik aurrera**

## // ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO:** Aramotz auzunea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Prezio ezin hobea.

**DURANGO:** Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.

**DURANGO:** Antso Estegiz. 3 logela, 2 komun, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara.

**DURANGO:** Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

### ABADIÑO

**ETXEAZPIA KALEA:** Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

### BERRIZ

**ELIZONDO ETXETALDEA:** Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

## //LURSAILAK SALGAI

**GAZTELUA:** 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

## //BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**BERRIZ:** Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

**BERRIZ:** Eitua auzoan. Baserri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

**ATXONDO:** AXPE. Baserri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria  
**ATXONDO:** ARRAZOLA. Izugarriko baserria salgai. 40.000 m<sup>2</sup>-ko lur saila. Berrizatzeko.

**MAÑARIA:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m<sup>2</sup> solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**MAÑARIA:** Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO:** Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreintzeko.

## //BULEGOAK ALOKAIRUAN

### ABADIÑO

30 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

## //GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

## //LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

## //LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIRUAN

**BERRIZ:** Eitua industrialdea. 800 m<sup>2</sup>-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

**MATIENA:** 460 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

## www.inmoduranguesado.com



**IURRETA**  
70 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**BIDEBARRIETA:** Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Erdialdetik gertu. ITE-a 2018.urtean pasatutakoa.  
**159.000 € C.E.E: E negoziagarria**



**MATIENA**  
58 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**TRANAETXOSTE:** Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (Ekialdea) Erdialdean kokatua. Apartzeko erraza. 4 m<sup>2</sup>-ko ganbara. ITE orainsu pasatua. Bizitzera sartzeko moduan.  
**124.000 € C.E.E: E**



**DURANGO**  
80 m<sup>2</sup>  
2 logela  
**LAUBIDETA:** Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eskegitokia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du (Mendebaldea). Leku onean kokatua. Igogailua. Gas naturala. Ezin hobea. 10,125 m<sup>2</sup>-ko garajea eta 11,38 m<sup>2</sup>-ko trastelekua.  
**218.000 € C.E.E: Bidean**



**DURANGO**  
79,10 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**ARAMOTZ:** Beheko solairua. Egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. Gas Naturala eta kristal bikoitzeko leihoak. Etxe osoak kanpora ematen du. (Iparralde) Berdeguneetatik gertu, eta herriko sarrera/irteera bat ere hurbil dago. Auzoa berrizatzeko proiektua, eta horren zati batek diru-haguntza izango du (fatxada, teilatua...) Bizitzera sartzeko moduan.  
**99.500 € C.E.E: G**



**DURANGO**  
85 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**ASTEPE:** Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia eta galeria. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hego-mendebaldea). Leku onean kokatua. Garajea eta 6 m<sup>2</sup>-ko trastelekua. Argitsua. Ikuspegiak.  
**249.000 € C.E.E: Bidean**



**DURANGO**  
78 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**SASIKOA:** Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Gas naturala. Etxe osoak kanpora ematen du. (Iparralde) Leku onean kokatua. EZIN HOBEA. Garajea eta trastelekuarekin + 26.000 €. Garajearekin + 15.000 €.  
**206.000 € C.E.E:E**

## //DURANGO

**ANTSO ESTEGIZ:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

**BARRENKALEA:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

**EZKURDI PLAZA:** 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 250.000 € / E.E.Z=F**

**GOIENKALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **112.000 € / E.E.Z= E**

**GOIENKALEA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 155.000 € / ORAIN 149.000 € / E.E.Z= G**

**KOMENTU KALEA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

**SAN AGUSTINALDE:** 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**

**SAN FRANZISKO:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

**SANTIKURUTZ KALEA:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m<sup>2</sup>-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

## //ABADIÑO

**ALFREDO BAESCHLIN:** Etxebizitza eraikitzeke lursaila. **180.000 €.**

## //BERRIZ

**BERRIZBEITIA KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

**MURGOITIO AUZO:** Berreraikitzeke baserria lurzorugaz. **290.000 €**

## //IURRETA

**OROZKETA AUZO:** 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

## //IZURTZA

**ELIZALDE AUZO:** 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

## //MATIENA

**TRANABARREN:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

## //OTXANDIO

**GONBILAZ AUZO:** Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **420.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

## //ZALDIBAR

**MIREN MAORTUA:** 3 pisuko etxea. 4 logela, sukaldea, garbitokia, egongela eta 3 komun. Terraza. Lorategia eta txokoa. Garajea eta trastelekua. **525.000 € / E.E.Z=E**

## //BERRIAK

### IURRETA

**DANTZARI KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000€ /E.E.Z=E**

## ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

## GARAJEAK SALGAI

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.



Eskelak jartzeko: 946 816 558  
edo anboto@anboto.org

**Eskela mota guztiak**

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

**Botikak**

**BARIKUA, 25** · 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San  
Miguel 15 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 26** · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga  
3 - IURRETA

IRUARRIZAGA, KARMELE San  
Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

GAZTELUMENDI J.A.  
Abasolo 2 - DURANGO

CAMPILLO Montevideo  
etorb. 24 - DURANGO

DE DIEGO Intxaurren  
22. - DURANGO

UNAMUNZAGA Muruetatorre  
2C - DURANGO

SARRIA Sasikoa 17, DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA  
Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA  
Trañabarren 15. - ABADIÑO

MELERO, ROSA MARI  
San Pedro 31 - ZORNOTZA

RUIZ, JUAN El Alto-Bide  
Zahar 14 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN Txiki  
Otaegi 3 - ZORNOTZA

GOIRIA, MARI CARMEN  
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

**DOMEKA, 27** · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San  
Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 28**  
· 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren  
22. - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San  
Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 1** · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL  
Askatasun etorb. 19 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San  
Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 2** 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San  
Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

**EGUENA, 3** · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga  
3 - IURRETA

IRUARRIZAGA, KARMELE San  
Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

**Zorion Agurrak**

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA

**GOZATU  
GOZOTEGI-OKINDEGIA**



Hamabostean behin jasotako zorion-  
agurren artean **tarta bat zotz egingo  
dugu.**

Zozketan parte hartzeko bidali  
kontaturako datuak zorion-agurrekin  
batera.

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, **Ekai!** Etxeko txikiak 3 urte egingo ditu  
martxoaren lehenengo egunean. Musu potolo bat  
guztion partez!



Zorionak, **Iraia!** Zure urtegune ondo baino hobeto  
ospatu deixon espero dogu. Ilargiraino eta buelta  
maite zaitugu! 28 mosu ta belarri tirekada gure  
partez. Zure kuadrillako tiabuenak.



Neskatxa ausart, eder eta zoragarri hauek urteak  
egin dituzte. **Julenek 11**, otsailaren 24an, eta  
**Jasonek 15**, urtarrilaren 22an. Zorionak eta musu  
potoloak senide guztion partez!

**Eguraldia**

ZAPATUA ↓ 16° / -1° ☁

ASTELEHENA ↓ 18° / 4° ☀

EGUAZTENA ↓ 15° / 6° ☁

DOMEKA ↓ 16° / 6° ☁

MARTITZENA ↓ 18° / 5° ☁

EGUENA ↓ 14° / 4° ☁

**DIBA**  
KOOPERATIBA

**Durangaldeko  
Baserritarren  
Elkartea**

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



# “Fiordoak eta aurora borealak ikusteko ametsa bete gura nuen”

Kultura eskandinaviarrak erakarrita, Ageda Etxeita Norvegiara joan zen, 2018an, Erasmus programagaz. Gaur egun Haugesund-en bizi da, herrialdearen hego-mendebaldean



**Ageda Etxeita Jauregi**

Norwegian bizi den erizaina

ZORNOTZA | 1997

**ZORNOTZA** • AITZIBER BASAURI

**Ageda Etxeita erizaintza ikasketak egitera joan zen Norvegiara, eta han bizi da gaur egun. Han negua luzea dela esan du zornotzarrak, eta, sasoi honetan, batez beste 1etik 7 gradura bitartean egoten direla bera bizi den herrian, Haugesund-en. Udaberria eta uda oso argiak direla dio: "Ekainean ia 20 orduan dugu eguzkiaren argia". Urte bi dira norvegiara ikasten hasi zela.**

**Erasmus programaren bitartez joan zinen lehenengoz. Zergaitik Norvegia?** Betidanik gustatu zait kultura eskandinaviarra, eta osasun eta ikaskuntza arloan erreferentzia handia da, Europan eta munduan.

Gainera, fiordoak eta aurora borealak ikusteko ametsa bete gura nuen. Natura eta herrialdea asko gustatu arren, bertan ikasle modura bizitako esperientzia hura izan zen berri bueltatzeko arrazoi nagusia.

**Zelan egokitu zara hango ohituretara?**

Norvegiako kultura desberdina da alde askotatik, eta asko ikasi dut, baina moldatzen nabil oraindino. Hizkuntza, janaria, jendea, eguraldia, lan egiteko modua... Hala ere, antzekotasunak ere topatu ditut, eta horrek asko lagundu dit moldaketa prozesuan. Hango kultura ezagutzen nabil, baina gure ohiturak ahaztu barik, eta ezagutu

ditudan norvegiarrak ere badabil-tza gurea ikasten nigaz.

**Behin ezagututa, norvegiarrak oso atseginak, adeitsuak eta jatorrak dira. Mendia, arrantza eta bizimodu lasaia gustatzen zaizkie**

**Zelakoak dira norvegiarrak?**

Hasieran itxiak dirudite, baina eguraldiak badu zerikusia. Neguan, hotzagaitik batez ere, lagunak edo familia etxera gonbidatzen dituzte, kalera irten beharrean. Baina behin ezagututa oso

atseginak, adeitsuak eta jatorrak dira. Mendia, arrantza eta bizimodu lasaia gustatzen zaizkie.

**Norvegiako paisaia eta Euskal Herrikoa oso desberdinak dira?**

Sinestezina badirudi ere, oso antzekoak dira. Mendebaldea oso hezea da eta ez du iparraldean egiten duen moduko hotza egiten. Mendira noanean, Euskal Herrian lez sentitzen naiz. Urkiola inguruaren eta Belatxikietaren falta igartzen dut batez ere.

**Gomendatuko diguzu Norvegiako fiordoetariko bat?**

Trolltunga: 27km-ko ibilbidea da eta inoiz ikusi dudan bistarik ederrerenetarikoa du.

**Zerk harritu zaitu gehien?**

Asko gustatzen zaie neguan eskiekin mendi martxak egitea, eta ibilbidean zein gailurretan Norvegiako Mendi Elkartek eraikitako etxe pare bat topatu daitezke. Edonor sartu daiteke, ateak zabalik dituzte beti, eta sutondoa, logelak, egongela, sukaldea eta kontserbako janaria erabili daitezke. Normalean ez dira garestiak (10-30 bat euro), baina batere kontrolik ez egoteak harritzen nau. Doan lo eginda ere, inor ere ez litzateke konturatuko. Baina norvegiarrek beti ordaintzen dute eta garbi-garbi uzten dute dena.

**Erizaina izanik, pandemia lehenengo lerroan bizitzea tokatu zaizu?**

Lehenengo urtea nahiko lasaia izan da. Gorabeherekin, baina osasun sistema kolapsatu barik. Lantokian prebentzioa izan da garrantzitsua, eta kasu gutxi izan ditugu, zorionez. Baina pandemia ez da amaitu eta lanean gabiltza, etengabe.

**Euskal Herriko osasun sistema eta Norvegiakoa oso desberdinak dira?**

Publikoak dira biak, eta horixe da garrantzitsua. Ospitaleak antzekoak dira, baina osasun zentroen antolaketa ez: medikuak eta idazkariak baino ez daude, eta erizain eta erizain laguntzaileek etxerik etxeko osasun zerbitzua eskaintzen dute, zerbitzu integrala eta publikoa. Medikazioa kudeatzen dugu, zauri akutu edo kronikoak tratatzen ditugu, elikadura enterala eta parenterala administratzen ditugu eta zainketa aringarriak egiten ditugu, besteak beste.

**Lau-hortza**

Ibai Zabala Gandarias Irakaslea



**Jolas daitezela**

Duela hilabete batzuk astekari honetan idatzi nuen artikululu bat zela-eta, gizon batek kalean gelditu ninduen. Idatzi hartan gureak diren eta galtzeak edo galduta ditugun eskualdeko euskarazko hitzen inguruan egin nuen berba, eta gizonak honakoa bota zidan: “berba batzuk galdu juauz, baina beste batzuk txarto erabiltzen gabizek. Beittik, oingo umien artien inor ez dok jolasten, danek jokatu eitten juek. Oin dana dok jokatu”. Arrazoi osoa zuen gizonak, bi aditz horiek ez baitute, ez esanahi, ez erabilera bera.

Alor gramatikalarri dago-kionez, jolastu aditza beti NOR kasuan erabili behar da; alegia, “umeak txin-txaunetan jolastu DIRA”. Eta, horrez gain, jolastuk adiera edo zentzu ludikoa du, atsegin hartzeari lotuta doana. Aldiz, jokatu joko batean aritzeari egiten dio erreferentzia. Ez dakit bata bestearekin nahaste horrek hizkuntzaren erabilerekin soilik duen zerikusia, edo hizkuntzaz haragoko hausnar-keta bat egin beharko genukeen.

Gero eta lehiakorragoa den gizarte eredu batean bizi gara, ondo pasatzea baino, elkarren arteko indarrak neurtzea eta garaile ateratzea garrantzitsuagoak diren batean. Umeak helduak balira lez hartzen dira, eta herriko plazara joan ordez, futbol-zelai, frontoi, igerileku eta abarretara doaz, entrenatzera. Etorkizuneko profesionalak guraso gaixoen, ez gizajoen, begietan.

Ez ditzagun jolastokiak joko zelai bihurtu, ezta umeak heldu ere. Jolas daitezela gau eta egun, irribarre bat ahoan dutela, harik eta jokoak bere atzaparretan hartzen dituen arte.

## DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

**sukia**  
Zure etxean zaude Estás en tu casa

**946 46 20 41**  
[www.sukia.com](http://www.sukia.com)